

itsasond2.0

Herriko Aldizkaria ((30. zk))) Urria-Abendua 2015

Jasok 50 urte bete ditu

Elkarrizketa:
Manu Agirre
Itsasondoko
sorrera
Segurtasuna
interneten





UUrteko egun luze eta eguzkitsuenak pasatuta ditugu; amabirjina jaiak, Urkiko jaiak eta Itsasondoko jaiak ere behar bezala ospatu ditugu; kalean eta lagun artean disfrutatzen diren egunak izan dira. Zuetako batzuek leku eta lurralde ezezagunak bisitatuko zenuzuten; beste batzuk, aldiz, inguruan denbora libreaz disfrutatzen ibiliko zineten.

Udazkena iristean, beste ekintza eta helburu batzuk hartzen ditugu: kirolak, ikastaroak, zinkuntzak... edo besterik gabe etxean goxo eta lasai egoteko asmoa izaten dugu. Hala ere, udazkena Itsasondon ekintza eta asmoz beteta dator; azken orriko agenda begiratzea besterik ez dago. Zuen denbora ondo antolatu eta parte hartzeko gonbita luzatzea besterik ez zaigu geratzen.

Bestetik, Itsasondo 2.0. aldizkariaren ale honek zenbaki borobila du; 30. alea dugu honakoa, 2008ko urtarrian lehen alea argitara atera zenetik. Orduetik, makina bat euri egin du eta makina bat gertakizun, kontu, elkarrizketa eta pasadizo zuen etxeetara eramaten saiatu gara. Lehen ale hura atera genuenean ez genuen uste proiektu honek horrenbesteko ibilbidea izango zuenik, ezta zuen oniritziarekin kontatuko genuenik ere. Hemendik, eskerrik beroenak 30 ale hauetan laguntza eskaini diguzuen guztiei, eta zuri ere bai herritar, badakigu zuetako askok aprezio handia diozuela herritik herritarrentzat egiten dugun aldizkari xume honi.

30 ale hauetan zehar denetik izan dugu; artikulu eta elkarrizketa gogoangarriak izan dira, baina baita hain ondo atera ez direnak ere. Barkamena eskatzea eta ale bakoitzean gauzak ahal bezain ondo egiten saiatu garena esatea besterik ez zaigu geratzen. Aurrerantz ere, berritzen eta hobetzen jarraitzeko asmoa daukagu, orain arte bezala zuen denon laguntza eta babesa jasotzen jarraitzea espero dugu, ezinbestekoa baita dugu aurrera egiteko.

Eta horrenbestez, 30. alea aurkeztu nahi dizuet: Udaleko berrietan, udal antolaketa eta osaketaren berri izango duzue; Haurren herria, haur eskola eta eskolak ikasturte berrirako egitasmoak kontatuz datoz; JASO enpresa ere, 50. urtemugako ospakizunetan izan dugu, eta hemen bere historiaren errebaso laburra egin dugu (Zorionak!!); elkarrizketaren atalean, aldiz, Manuel Agirrek bere bizitzako hainbat atal eta erlezaintzaren inguruko berri ematen digu, ezti goxoa bikain etorriko zaigu ziuurtenik denok harrapatuko dugun katarro, gripe edo hotzaldiri aurre egiteko. Gainerako edukiak zuen kabuz deskubritzera gonbidatzen zaituztegu. Gustukoa izatea espero dugu. ■



Aurkibidea

- 03. **Udaleko berriak**
- 04-05. **Eskola:** Udazkenean ere baratza!
- 06. **Haurreskola:** Ikasturte hasiera
- 07. **Haurren herria**
- 08-09. **Gazteria**
- 10. **Gazteak**
- 11-15. **Elkarrizketa:** Manu Agirre
- 16-18. **Zaharrak berri:** Itsasondoko sorrera
- 19. **Jubilatuak**
- 20-21. **Jaso:** 50. urteurrena
- 22-23. **Ibilbidea:** Ataun: San Martin-Amondarain
- 24. **Guraso elkartea**
- 25. **Informatika**
- 26. **Ongizatea:** Mendekotasun legea
- 27-29. **Hemeroteka**
- 30. **Natura eta errezeta**
- 31. **Liburuaren txokoa / Euskararen atala**
- 32. **Oharrak. Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: *Ez nau izutzen negu hurbilak*

Ale berri bat zabaldu zaigu udazkeneko haizetan: Urkiko jaiak pasa berriak direla Santakruzetan, Jaso enpresak mende erdi bat jaso du neke latzetan, ta Itsasondo noiztik da herri Oriaren bi zertetan?

Mendekotasun legeak badu berritzeko erabakia, haur, gazte eta nerabeentzat mundo baten zergatia... Agirrek berriz erantziko du astronauta estalkia erleziztada bihur dezagun sendatzeko terapia.

Udal erabakiak

Aurreko zenbakian esan bezala, ekainaren 13an udal berria osatu ondoren, lan taldeak aurreko legegaldian antolatutako moduan lanean hasi dira. Uztailearen 6an izan zen udal osoko bilkuran, funtzionamendu sistema onartu eta udalak parte hartzen duen erakundeetako ordezkariak erabaki ziren.

Udalbatza zazpi zinegotzik osatzen dute: 5 zinegotzi EH-BILDU taldekoak eta 2 EAJ-PNV taldekoak.

Sortu diren lan taldeak hauek dira:

- **Herri Bizitza:** Maddi Alberdi Salegi zinegotziaren ardura-pean.
- **Ongizatea:** Erkuden Mendizabal San Sebastian zinegotziaren ardura-pean.
- **Lurralde Antolamendua:** Kike Fernandez zinegotziaren ardura-pean.
- **Kontuak:** Asier Garro Sodupe alkatearen ardura-pean.
- Batzorde horiek irekiak dira eta parte hartu nahi duten bizilagunek udaletxean jakinaraziz gero, bileren egutegiaren berri jasoko dute. Bilera horietan lantzen diren gaien inguruko informazioa www.itsasondo.eus helbidean ere eskuragarri dago "Parte hartzea" atalean.

Azken hiru hilabeteotan landu diren gai garrantzitsuenak hauek dira:

- Itsasondoko aparkalekuko araudia aldatzea erabaki da, herritarrek egindako eskariari erantzunez, eta Itsasondon erroldaturik daudenek aparkatzeko kontzesioa 3 kamioientzat eskuratu ahal izango dute. Lehen, muga 2 kamioitan zegoen. Aldiz, herritarrak ez direnek, kontzesioa gehienez kamioi batengatik lortu ahal izango dute.
- Lur ez urbanizagarrian kokaturik dauden baserrietan etxebizitza bat baino gehiago ezarri ahal izateko, indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan orokorraren aldaketa puntuala jendaurrean jarri ondoren, proposamen bat jaso da. Aurkeztutako proposamenari oniritzia eman ondoren, Plan Orokorra aldatzeko irizpideak behin betiko onartu dira irailaren 7an egindako udalbatzarrean.
- Goiener Kooperatibak dituen helburuekin bat eginik (energia eredu berriztagarrien alde lan egiten du) Udalak irailaren 7an egindako batzarrean Goiener Kooperatibako bazkide laguntzaile izateko eskaera egitea erabaki du.
- Irailetik aurrera liberatu moduan, astean 8 orduz lanean ariko den zinegotzia Maddi Alberdi izango da. Astearte eta ostegunetan izango da udaletxean, 09:00etatik 13:00etara.
- Udalaren jabetzako sail batzuetan dauden pinuak bota eta bertako egurra saltzeko enkantea martxan jartzea erabaki da.
- Nagusia 7ko 2. solairuan udalak duen prezio sozialeko etxebizitza libre geratuko da urriaren 1ean. Horregatik, las-ter prozedura berria martxan jarriko da, etxebizitza hori errentan hartzeko interesaturik daudenek izena emateko. Hilabeteko errenta kuota 250€ izango da. Informazio gehiago udaletxean.



Moziok

Honako mozio hauek aztertu dira irailaren 7an egindako udalbatzarrean:

- Askapena erakunde internazionalistari Auzitegi Nazionalean egin behar dioten epaiketa salatuz eta kartzela zigorra eskatzen duten 5 lagunen absoluizioa eskatuz. Mozioa EH Bildu taldeko botoekin onartu zen.
- Siria eta beste herrialde batzuetako gatazka politiko eta militarretatik ihes eginik Europara sartu nahi duten errefuxiatuen exodoaren aurrean, Itsasondoko Udalak EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa onartzea erabaki du. Mozioa EH Bildu taldeko eta EAJ taldeko zinegotzien botoekin ahobatez onartu da. Muzio horretan errefuxiatuak hartzeko prestutasuna eta Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta beste udal batzuekin batera lan egiteko konpromisoa jasotzen da.

Eskatutako laguntzak

- Foru Aldundiari Langileen lanen kudeaketarako web aplikazioa garatzeko laguntza eskatu zaio eta %65eko laguntza jasoko da.
- Tipi-Tapa programa finantzatzeko laguntza eskatu zaio Eusko Jaurlaritzari.
- Euskal Energia Erakundeari Argiteri Publikoaren eraginkortasun energetikoa lortzeko laguntza eskatu zaio.
- Liburutegirako liburuak erosteko laguntza eskatu zaio Eusko Jaurlaritzari.

Jasotako laguntzak

- Itsasondo 2.0 aldizkariaren gastuak kubritzeko 1.500€.
- Gazteriako teknikariaren kontratazio gastuetarako 8.127€.
- Argiteri Publikoaren eraginkortasun energetikoa lortzeko 17.794€.
- Parte hartze programak burutzeko 5.000€.
- Azkenik, lau hilabeteen lanaldi erdian ariko den informatiko baten kontratazio gastuak kubritzeko laguntza eman digu Lanbidek.

Bestelako erabakiak

- Obra txikiak egiteko 5 baimen eman dira.
- Ezinduentzako aparkamendu txartelak eman dira.
- Hilerriko lurperatze taseen 2 kontzesio eman dira.
- Emadako obra baimenak urratzeagatik espedienteak tramitatzen hasi da.
- Euskara ikastaroa egiteagatik laguntza bat eman da: 378€.
- Kultur gunean haurren masaje ikastaroa emateko lokala uztea erabaki da. ■

Udazkenean ere baratza!



Udazkena iritsi zaigu, eta baita uzta biltzeko garaia ere. Tomateak gorri-gorri eginda etxeratu ditugu. Kalabazak ere handi-handi egiten ari dira. Artoa noiz helduko zain gaude, ea benetan palomitat egin daitezkeen ikusteko. Hala ere, biltzea ez da nahikoa, berriak aldatzen ere hasi beharko gara, jaso ahal izateko lehenik lan egin beharra dago eta.

Eta itxura ere zaindu beharko genuke. Baratze mugetan "setoa" landatu genuen, baina barruko pasabideak ere ondo mugatzea dagokigu.

Ureztatzeko modua ere aztertuko dugu. Orain moldatzen garen bezala nahikoa al da? Euri ura jaso al dezakegu? Negutegi barrukoak eta kanpokoak modu berean ezingo ditugu ba ureztatu...

Hurrek aztertu beharko dute hau guztia, eta modu egoki eta jasagarrian kudeatzeko modua aurkitu beharko dugu denon artean. ■



Hazteko eta Hezteko Taldea

Oraindik ere gogoratzen dut amonak prestatzen zidan ogitartekoa, ni bitartean etxe azpiko parkean jolasean, noski. Auzoko mutiko batekin jolasten nintzen. Amonaren bizilagunaren iloba zen. Batzuetan amonak prestatzen zuen ogitartekoa eta beste batzuetan nire lagunaren amonak. Eraikin horrek bizilagun asko zituen, 12 familia bizi ziren bertan; hala ere, etxeko ateak askotan egoten ziren zabalik. Urteak pasatu dira, asko ez, baina egoera asko aldatu da.

Gaur egun, nire amonaren etxea itxita dago beti. Orain dela gutxi etxeko sarraila aldatu du, erosi berria segurua omen da. Batzuetan, bera etxean dagoela ere barrutik ixten du.

Garai batean, gure amonek egiten zuten bezala, taldean konpontzen ziren bizilagunen artean. Berak beti dio umeak mundura ekartzea baino gauza errazagorik ez dagoela, lan gogorra umea jaio eta gero datorrela. Gogoratzen du emakumeak errekarra joaten zirenean arropa garbitu bitartean, umeak inguruan zebiltzala, poztasunak eta beldurrak konpartitzen zituztela. Taldean partekatutako negarrak eta algarak gogoratzen ditu.

Gure artean, penak lagun-minarekin hitz eginda arintzen ditugu, baina aspaldiko talde izaera galdu da. Beraz, herrian hutsunea betetzeko eta talde beharra asetzeko asmoz, talde berri bat sortzera animatzen zaituztet.

Itsasondon hazkuntza eta hezkuntzaren inguruan komunitatea sortzeko deialdia luzatzen dut idatzi honen bitartez; Itsasondoko elkargunea, topagunea. Wikipedian honako hau irakur liteke: "Gizataldea edo komunitatea hainbat elementu komun partekatzen dituen gizaki multzoa da, bereziki hizkuntza, ohiturak, balioak, interesak, zereginak, kokapen geografikoa, (...)". Hainbat elementu partekatzen dituen gizaki multzoa gara, sor dezagun talde bat!

Aspaldian honelako taldeak era natural baten sortzen baziren ere, gaur Hazteko eta Hezteko Taldea sortuko dugu familia eta lagunaren artean beharrak ase eta erreferente izateko asmoz.

Taldean pertsona ezberdinek parte hartu lezakete; hala nola, haur txikiak dituzten familiak, haurdun dauden emakumeak edota haurdun geratu nahi dutenak, hezitzaileak, eta abar.

Alde batetik, Talde honen helburu nagusiak honakoak lirateke:

- Adierazteko, emozionatzeko eta elkarbanatzeko espazioa sortu.
- Hazkuntzari buruzko gogoeta bultzatu.

Bestetik izaera, topaketen maiztasuna, iraupena eta antolaketa taldeak berak erabakiko du. Hurrengoak izan liteke adibide bat:

- Taldearen izaera ezaugarriak, adibidez: taldea irekia da eta parte hartzea doakoa eta boluntarioa.
- Maiztasuna: hilean behin.
- Topaketen iraupena: ordu eta erdiko saioak.
- Antolaketa: elkartzea; aldeaz aurretik adostutako gai baten inguruan mintzatu; zalantzak, bizipenak, kezak adierazi; agurra.

Parte hartzeko gogoa piztu bazaizu, proposamenak baldin badituzu, esperientziak konpartitzeko asmoa baldin baduzu, adi egon hurrengo deialdietara taldea guztion artean sortuko baitugu! ■

Maidar Saenz de Navarrete



Haur masaje ikastaroan 6 familia aritu dira: Hiru Itsasondo, bi Ordizi eta Zaldibitar bat.

Ikasturte hasiera

Ongi etorri aurtengo ikasturtera. Urtero bezala irailaren batean ikasturte berria hasten da gure haurreskolan, Urkipe haurreskolan. Aurten zazpi umerekin hasiko gara ilusio handiz eta gure zerbitzua hobetuz; bertako hezitzaileek formakuntza saioak eginez, beste entitateekin harremanetan jarriz eta ideia berriak aztertuz. Bestalde, egokia izango da gure helburuak zein diren eta nola lortuko ditugun gogoraraztea:

Gure helburuak:

- Haurra gustura etortzea.
- Haurraren autonomia lantzea.
- Haurraren garapena behatzea eta laguntzea plazerez bizi dezan.

Helburuak lortzeko landuko ditugun arloak:

- Gurekiko harremana, lotura.
- Bere gorputzarekin harremana, mugimenduaren bidez.
- Materialarekiko harremana, esplorazioaren eta esperimentazioaren bidez.
- Beste haurrekin harremana, kidetasuna.
- Espazioarekiko harremana.

Haurrak arlo hauetan egiten dituen ibilbideak:

1. Gurekiko harremana izango da lehen pausoa. Beharrezkoa da gurekin harreman egonkor eta segurua sortzea. Honek bere denbora behar izaten du, haurrarentzat etxetik haurreskolara etortzea aldaketa handia izaten baita eta egokitu egin behar izaten du. Batzuek berehala egiten dute, eta beste batzuek erresistentzia jartzen dute. Baina pazientziarekin eta maitasunarekin dena lortzen da.
2. Lotura landu eta gero haurra seguru eta onartua sentitzen da, eta mundura irekiko da. Honela, aurrena bere gorputzarekin hasiko da jolasean (mugimendua tamian eta bere gorputzaren esplorazioa).

Ondoren, materialarekin esperimentatzen eta esploratzen. Hortik espazioa kontrolatzera. Azkenik, besteekin harremanak izaten.

Hezitzaileon papera:

- Haurraren beharrak asetzea,
- Bere autonomia lantzea animatzea.
- Bere garapena ahal den neurrian berak konkista dezan laguntzea.
- Haurrari protagonista izaten utziko diogu.
- Ez gara aurreratuko haurraren ekintzetan.
- Segurtasuna eman.



Helburuak lortzeko gure baliabideak (espazioa eta materiala):

- Esperimentazio txokoa: ontzi batean material desberdinak (ogirina, artoa...), beste ontzi batean beste material mota bat (papera, aluminio papera...).
- Lasai txokoa: tatamia. Hemen egoten dira txikiak beraiek espazio honetatik atera arte. Handiagoek liburuak dituzte eskura eta kuxin batzuk lasai egoteko.
- Aereoak: txirrista eta kuboak gora eta behera ibiltzeko.
- Eraikuntzak eta jolas heuristikoa lantzeko txokoa.
- Presinboliko txokoa (panpinak, sukaldetxea...).
- Psikomotritate gela.
- Bazkaltzeko espazioa.
- Naturarekin zerikusia duen elementua zaintzea (lore, arraina...).
- Aldagela.
- Lo egiteko espazioa.

Kontu hauekin guztiak haurraren autonomia eta garapena landuko ditugu, bere erritmoa errespetatuz. Haurraren adina kontuan hartu behar dugu, adinarekin arabera behar desberdinak dituztelako eta guk hori errespetatu behar dugulako. Beharrezkoa da haurrak gure bihotzean leku bat duela sentitzea gustura egoteko.

Besterik gabe agurtzen gara, hurrengora arte. Oraindik lekua badagoela ere adierazi nahi dizuegu, eta edozein informazio behar baduzue bertan gauzatzeko, esku zabali, zuei laguntzeko. Aurten, gainera, haurreskolaren kuenten sistema aldatu egin da. Familia bakoitzaren errenta hartuko da kontuan kopurua kobratzeko garaian. Beraz, hiru kuota egon litezke zuen errenta aitoparen arabera. Lehen aipatu dugun bezala, informazio gehiago behar izanez gero, etorri haurreskolara bisitan. Ondo hasi ikasturtea eta laster arte. ■



Haurren herria

Itsasondon prozesu zabal eta luze bat hasteko abiapuntua

Badira urte pare bat Haurren Herriak bere ibilbideari ekin ziola. Bilera asko eta gorabehera asko ere izan dira. Ezjakintasun batetik baino, garbi ikusten genuen behar batetik (Hezkutzako eragile guztiok, Herri ikuspuntu batetik, Hezkuntzari dagokionez bagenuela zer esan) abiatu ginen, eta horrek honaino ekarri gaitu.

Lerro hauetan honako galderari erantzuna ematen saiatuko gara:

1. Zergatik ari gara?
2. Zer egin dugu?
3. Zertan ari gara?

1. Garbi dugu zergatik ari garen: Helburu nagusiak denon artean erabaki behar ditugulako eta elkarrekin indar gehiago egingo dugulako.

- Oinarriak eraiki behar ditugu haur parte-hartzaileak, autonomoak, kritikoak eta sortzaileak heitzeko. Eta noski, herriko parte izan daitezten.
- Heziketa formalaren eta ez formalaren artean elkarlana egin behar dugu.
- Hemengo eskolara etortzen ez diren haurrak gureganatu behar ditugu, herrian gelditzeko.

2. Zer egin dugu? Bada, bereziki ekimen desberdinen bidez herritarren ekarpenak jaso eta horiek jarri gure lanerako zutabe moduan. Urtarrileko ekimena aipagarria da. Hortik atera genuen hezkuntzaz eta Itsasondoko herriaz gure umeek (eta helduek) duten ikuspuntua, non dauden gure indarguneak, non alde txarrak edo hutsuneak... Adibide gisa ikuspuntu baikorretan atera zirenak honako hauek: "5 urtetik aurrera auzoan kedada egiten dugu eta bakarrik joaten gara eskolara". "Eskolako gelak handiak eta erosoak dira". Ikuspuntu ezkorreko kontua ere atera ziren, ordea: "Harategi eta arraindegi txiki bat falta da". "Eskolak sarrera aldatpatxua du; batez ere neguan elurra edo izotza egiten duenerako."

3. Zertan ari gara? Bada eskolak hezkuntza proiektua landu behar du, eta Haurren Herriaren logika jarraituz, proposamen bat luzatu digu. Zer nolako Heziketa Proiektua landuko lukete herritarrekin kontatu gabe? Denon artean egingo dugu, baino denok egiten badugu perspektiba desberdinetatik ikusiko da, beraz, herri ikuspuntu bat edukiko du, eta horixe izango da bere Indargune nagusia. Gero beraiek hartuko dute beraien hezkuntza proiekturako interesatzen zaiena, eta Itsasondorentzat egingo dugu gure ekarpena, bere proiektu orokorran txertatzeko. Guk Herri bezela landuko ditugun puntu orokorrak ondoren hauek izango dira: Hezkuntza formal, Hezkuntza ez formal, euskara eta integrazioa bere sentzu zabalenean (kanpotik etorritakoak eta bertakoak bertako bizitzan).

Eta badugu beste indargune bat, eta hemendik proposamen gisa luzatzen diogu herri osoari, baina bereziki Udalari: Hezkuntza proiektu honetatik aterako ditugun ondorioekin Itsasondoko norabidearen marrazketa orokor bat atera dezakegu hezkuntzari dagokionez. Konsensez gara hau aletxo bat besterik ez dela, Itsasondo ikuspuntu gehiagotatik landu behar dela, baina uste dugu horixe dela indargunea. Prozesu hau abiapuntu bat izan daiteke Itsasondon prozesu zabal eta luze bat hasteko. ■





Haurren batzordea nolako herria nahi duten proposatzen

Gazteen atala

Orain arte, atal honetan, haur eta nerabeekin egiten ditugun ekintzen azalpena eta argazkiak jarri izan ditugu. Oraingo honetan, ordea, ekintza horiek zergatik eta zertarako diren ezagutarazi nahi genizuen, eta hori marko teoriko batean kokatu. Akaso, teorikoezia norbaitentzat, baina ezinbestekoa ulertzeko orain arte egin dugun bidea eta oraindik ere marrazteko duguna.



Haurrak herri batzar batean

Itsasondon, azken urteetan, haur eta gaztetxoan parte-hartzea eta ekimenak bultzatzeko zerbitzuak ditugu abian. Baina, agian, zuek errazago ezagutuko dituzue ludoteka, guraso txoko edota gazteleku bezala.

Herritar aktiboak sustatzea xede duen zerbitzu batez ari garenez, ezinbestekoa da herritartasun aktiboaren eta parte-hartzearen arteko harremanari arreta eskaintzea.

Herritartasun aktiboak sustatzeak hiru elementu ezberdin bultzatzea dakar:

1. Norbanako mailan (haurra norbanako bezala).
2. Talde mailan (haurra bere taldeko kide bezala).
3. Komunitate mailan (haurra Itsasondoko herritar bezala).

Horrela, haurrak eta gaztetxoak erdigunean jartzen ditugu eta hainbat ekimenen bidez (beti ere, gozamina eta aisialdi hezitzailearekin lotuta daudenak) honako hauek sustatzen saiatzen gara:

1. Norberaren autonomia (norbanako bezala).
2. Konpromisoa eta jarrera kritikoa (talde mailan).
3. Aldaketa prozesuetan inplikatzeko gaitasuna (komunitate mailan).

Baina zer esan nahi du haur eta gaztetxoak erdigunean jartzea? Bada, haur eta gaztetxoei zuzenduriko proiektu bat izango dela; nahiz eta horrek ez dituen baztertuko ez helduak eta ez gazteak, ez proiektu horien gozamenetik ez eta kontsumotik ere, eta are gutxiago proiektu horien antolaketetatik.

Herritartasun aktiboa sustatzeko ekintzarik garrantzitsuena haur eta gaztetxoei protagonistaren papera ematea da. Hitza ematea, euren iritzia adierazten uztea eta euren diotena kontutan hartzeko borondatea izatea. Haur eta gaztetxoei hitz egin arazteak, ordea, ez du suposatzen proposatzen duten guztia bete behar izatea.

Ez da erreza haur eta gaztetxoei hitza ematea, ezta esaten dutena ulertzea ere (edo baliteke guk ulertu nahi ez izatea, askotan esaten baita umeez eskatu, dena eskatzen dutela). Sinistuta egon behar da haur eta gaztetxoek guri esateko eta emateko gauzak dituztela, eta horiek helduen kontuen desberdinak dira, eta beraz, merezi duela esan nahi dutena esaten uztea. Haur eta gaztetxoak ausartu daitezten sustatu behar da, desio dezaten, asma dezaten.

Parte-hartzea sustatu, zertarako ordea? Azkenaldian asko entzuten da parte-hartze hitza. Politikoek bere egindako kontzeptu bat da, erabiltzearen erabilgaitasun ia-ia benetako esanahia ere galdu duena. Politikarik haratago, ordea, garbi dagoena da herritarren parte-hartzeak eta herritarren inplikazioak garrantzi handia daukala herri txikien biziraupen eta dinamizazioan. Eta hori sustatu ahal izateko ezinbestekoa dela ahalik eta herritar gehien barne hartuko dituen zerbitzuak eskaini eta herritar gehienek parte hartuko

duten prozesuak sortzea. Hori dela eta, parte-hartzea sustatze aldera, haur eta nerabeekin lanean ari garenean saiatzen gara:

1. Herrigintza helburu duen ekimenak antolatzen (herritarrentzat eta herritarrekin).
2. Erabakiak adostu eta zereginak banatzen (proposatzen duten hori aurrera eramateko estrategiak barneratzeko, ez baita soilik proposamena egitea).
3. Ikasketa prozesu eraldatzaile bat izaten (ekintzetatik prozesuetarako bidean egiten diren ekintzei zentzua emanez, zergatik eta zertarako egiten ditugun hausnartuz).
4. Horretarako egitura eta lan modua definitzen: herri batzarretara gonbidatuz haurrak eta nerabeak, parte-hartze errealerako moduak bilatuz (asanbladak eginez, iritzia eskatuz...) eta beste prozesuetan haurrak eta gaztetxoak ere inplikatur.

Herritartasun aktiboa eta parte-hartzea izan ditugu izpide artikulua honetan, hitz potoloak biak ere, baina ez arrotzak Itsasondo bezalako herri batentzat, auzolana eta elkarlana ondo ezagutzen dituen herria baita. Haur eta gaztetxoen zerbitzu hauetan daramagun bidea oso motza bada ere, ibilbidea marrazten ari gara. Askotan bihurguneak topatu ditugu, eta oraindik ere topatuko ditugu, baina horretan jarriak ditugu indarrak, eta hainbat eragile inplikatura gaude. Segi dezagun horrelaxe elkarlanean! ■



Gaztetxoak jubilatutako elkartarekin torradak egiten ikasi zituzten



Haurrak udalekuekako programazioa egiten



Txistor jana antolatzen



Argazki erakusketa antolatzeko materiala aztertzen



Ikasturte berriarekin batera erreleboa



Urte dezente pasa dira jada “Emantzipazio” programan parte hartu genuenetik. Hari esker Itsasondoko gazteok gaztetxearen bueltan elkartu eta hainbat ekimen aurrera eramaten saiatu ginen; talde izaera hartu eta herria berpizteko helburuarekin gogotsu hasi ginen lanean.

Herri Eguna programa haren baitan sortu bazen ere, ez ginen soilik hartara mugatu. Programari esker, Gaztelekua sortu zen; hezitzaile baten laguntzaz eta gazteen beharretan oinarrituz Udalak

eskainitako espazioa. Guk gehiegi aprobetxatu ez bagenuen ere, pozgarria da benetan gaur egun duen martxa ikustea. Urteik urtera jende berri gehiago sartzen da, eta horrek, Itsasondo bezalako herri txiki batentzat hain garrantzitsua den ondorengotza suposatzen du gazteen artean.

Gaztelekua utzi eta bertako antolakuntzarekin jarraituz Gazte Asanblada sortu genuen. Guri gertatu zitzaigun bezalaxe, orain arte Gaztelekuan ibili den koadrilari, adina dela eta, ondoren-

goei uztea egokitzen zaie. Hala ere, ez da hemen bukatuko haien ibilbidea, Gazte Asanbladako partaide izateko gonbitea egiten diegu, batzuk jada errelebo eskean baikaude.

Gure helburua Itsasondon gazte taldea mantentzea da, ditugun behar, arazo, interes eta abarrei erantzuna emateko. Beraz, gurekin bat egitera deitzen diegu, taldean lan eginez eta elkarrengandik ikasiz, herrian saltza pixka bat jartzeko! ■




Manu Agirre

Itsasondoko erlezaina



Manuk erleen mundura gerturatuko gaitu eta animali miresgarri hauei buruzko gauza interesgarri ugari kontatuko dizkigu, beraietatik lortzen diren produktuak, gaur egun dauzkaten arriskuak, asiar liztorra eta anekdota asko.



Eztiaz gain, polena egiten dugu, oso ona gizonezkoen prostatarako, propoleoa ere, hau antibiotiko naturala da. Polena jasotzen baduzu, ez duzu ezirik jasotzen, beraz denbora gutxian hartu daiteke polena, gehienez aste bete.

Nolatan hasi zinen erleekin lanean?

Itsasondoko Jaso enpresan aritu nintzen urte luzez lanean eta nire familiak uste zuen, jibatuta ondoren aspertu egingo nintzela. Horrela nire semeak egina zeukan erleei buruzko kurtsu bat egitera animatu ninduten.

Zein kurtsu egin zenuen?

Oinarrizko erlezaintzaren ezagutza, kurtsu hau Zizurkilgo Fraisoro nekazal eskolan egin nuen. Lehenengo kurtsu hori egin ondoren, ez nintzen asko aklaritzen eta askorik ez nekiela uste nuen, hau da, pentsatzen nuen ez nintzela ezer egiteko gai erleekin.

Eta ondoren?

Hurrengo urtean berriro apuntatu nintzen kurtsu berdineran, baina oraingoan aurreko aldean eseri nintzen zer bait ikasteko eta parte hartzeko, praktike-tan garrantzitsua da aurrealdean ibiltzea gauzak ikasteko. Horrela zer bait ikasi nuela uste nuenean hiru erle-ontzi ipini nituen.

Nola joan zen lehenengo esperientzi hura?

Orain dela hamabi urte eta udaberria zen, hau da erleak ipintzeko garairik onena. Baina segituan akatsak egiten hasi nintzen, hiru erle-ontzi horietatik bi hil egin zitzaizkidan eta bakarrarekin geratu nintzen. Lehenengo bi-hiru urte-tan arazo asko izan nituen.

Noiz hasi zinen egoerari buelta ematen?

Behin Ordiziako azokan, kurtsuak ematen zizkigun Mikel Sarasolarekin topo egin nuen eta komentatu nion ez nengoela batera gustura erleekin eta ez nekiela segitu edo ez, beti problemak besterik ez nituela edukitzen. Mikelek adierazi zidan, berak ere arazo berdina izan zituela hasieran eta gauza bat pentsatzeko, erleekin lau urte ibili eta ez baduzu inongo arazorik, ez dakizula ezer. Problema edukiz eta soluzionatuz ikasten dela, hau da, ibilian ibilian ikasten dela eta erlea menperatzen hasten zarenean, orduan hasten zarela disfrutatzen.

Erleak menperatzen hasi zinen?

Problemei aurre egiten hasi nintzen. Orain konturatzeko zara, esperientzia falta dela arazo guztien oinarria. Egurdiari begiratzea oso garrantzitsua da, egin nuen lehenengo akatsa, martxoan erleak udarako prestatzea izan zen. Nahiz eta martxoan oso ona egin, apirila maiatza arte ez dira erleak udarako prestatu behar, hemen eguraldi aldaketa handiak egiten dituelako udaberrian.

Non daukazu erleak?

Kurtsua egin nuenean, esplikatuta zidaten erle-ontziak nola eta non jarri behar nituen, adibidez ekialdera begira, eguzkiak goizetik jotzen dien lekuan. Pentsatu nuen, Urkin gure terenoetan leku on bat banuela eta han ipini nituen, sagasti baten gainaldean.

Materiala?

Kurtsua eman digutenean, erleak ipintzeko beharrezko den material eta informazio guztia eskura jartzen dizute. Lehenengo urratsa, ematen dizueten erle multzoa handitu eta indartzea da eta bigarren urratsa ezta ateratzea, nik lehenengo bi urteetan ez nuen ezirik atera. Gipuzkoan erlezain elkarte bat dago eta bertan ekoizle-albaitari diren bi pertsona daude: Egoitz eta Miren, hauek behar duzun laguntza guztia ematen dizute.

Beraz, erlezain elkarte bat dago?

Elkarte honetan Gipuzkoako erlezain guztiak bazkide gara eta denetara bazkide asko gaude. Ni erleekin hasi eta berehala bazkide egin nintzen, elkarte berak eskaintzen dizu laguntza, aholku-

laritza, materiala, formakuntza... elkartearen hasieran Zizurkilgo zegoen, gero Itsasondoko ere egon zen eta azken urte hauetan Zaldibian dago. Elkartearen Itsasondoko egoteak izugarriko laguntza suposatzen zuen niretzat.

Formakuntza ere?

Elkarte honetan formakuntza ikastaroak egoten dira eta horretaz gain erlezain artean bilera batzuk egiten ditugu (gutxi joaten gara), baina gure arazoak besteei azaltzen dizkiegu eta horrela denok ikasten dugu. Bilera hauek oso interesgarriak dira. Erleei buruz oso gutxi dakigu, uste dugu zer bait badakigula baina ez dakigu ezer. Gure albaitari Egoitzek izugarri daki eta berak esaten du oso gutxi dakielako erleei buruz, atera kontuak hortik.

Jendea erleen ziztaden beldur da eta uste dute ezta ateratzeko balio dutela bakarrik eta ez da horrela.

Eztiaz gain, zein beste produktu ateratzen dira?

Eztiaz gain, polena egiten dugu, oso ona gizonezkoen prostatarako, propoleoa ere, hau antibiotiko naturala da. Polena jasotzen baduzu, ez duzu ezirik jasotzen, beraz denbora gutxian hartu daiteke polena, gehienez aste bete. Gainera polena ia egunero jaso behar da, bestela lizundu egiten da. Bi urteetan aritu nintzen polena ateratzen. Polen freskoa edo izoztua ezin da saldu, bakarrik lehortuta, nahiz eta %60-ko propietateak bakarrik mantendu. Esaten dute bakoitzak bere inguruko polena hartu behar duela, kanpoko lora baten polenak alergia egin dezakeelako. Ahal bada polen pikorrek kolore ezberdinetakoak izan behar dute, dena kolore berdinekoak badira monolaborantza batekoa dela adierazten du (adibidez ekilore polenak).

Erregina-jalea, beste produktu bat da, nik ez dut ekoizten. Erleek erabiltzen dute erregina elikatzeko. Oso ezaguna egin zen 40. hamarkadan, Aita santu bat hil zorian zegoen eta italiar mediku batek Erregina-jalea emanaz sendatu zuen. Honek izugarriko oihartzuna eduki zuen. Euskadin Erregina-jaleak dakien erlezain gutxi dago eta ikastaro bat egiten dutenean, hiru edo lau erlezainek parte hartzen dute.



Gipuzkoako txapeldua



Kontuz erleak



Liztor asiarraren apia



Asiar liztorra

Propoleoa, zuhaitzen azaletik hartzen duten erretxina, ondoren erle-ontziko juntak isteko erabiltzen dute. Antibiotiko naturala da, guk etxean egiten dugu alkohol edangarriarekin, etxean denok hartzen dugu.

Eztia, kolore eta lora ezberdinetakoa izan daiteke. Akazi ezta argia da eta urte guztian mantentzen da kristalizatu gabe. Gaztaina ezta iluna da eta lau hilabetetara kristalizatzen hasten da, baina ez da txarra, prozesu naturala da (solidotzea), ezberdina da fermentatzea, kasu honetan eztiak hezetasun handia daukanean, eztiari apar zuria ateratzen zaio eta ezta mikatu egiten da. Ezti hau ez da jan behar. Hezetasuna %16-18-koa izan behar du. Txilar ezta udazkenekoa da, %23-ko hezetasuna eta oso iluna da, kristalizatzeko erraztasun handia dauka.

Nik normalean mila-loreko ezta egiten dut, baina udaberri batzuetan akazi ezta egin izan dut. Mila-loreko ezta argia edo iluna izan daiteke.

Txapelketaren batean parte hartu al duzu?

Normalean Goierriko txapelketara aurkeztezen naiz, hau Ormaiztegin egiten zen, baina azken urteetan Gabirian egiten da. Duela urte batzuk, Itsasondon egin zenean, hirugarren geratu nintzen. 2011-ko udazkenean Goierriko txapelketa irabazi nuen, ezti argietan eta ondoren 2012-ko udaberrian, Gipuzkoako txapeldun atera nintzen, ezti berdinarekin.

Nola funtzionatzen dute txapelketek?

Kilo erdiko bi ontzi ezti eramaten dira zure bailarako txapelketara (nire kasuan Goierri). Ontzi bat erabiltzen dute bailarako txapelketan eta beste ontzia gordetzen dute Gipuzkoako txapelketara iristen bazara. Horrela, zuk zure bailarako txapelketan lehenengo hiruretan egiten baduzu, aukera daukazu Gipuzkoako txapelketan parte hartzeko. Gipuzkoa zazpi bailaratan banatuta dago eta bakoitzetik hiru hobereak etortzen dira, beraz denera hogeita bat erlezain elkarten dira. Gipuzkoan ezti argi, ezti ilun eta mila-loreko eztien txapelketa jokatzen da.

Euskalerriko txapelketan parte hartu duzu?


Ez, Euskalerriko txapelketa aparte da, Usurbilen egiten da eta ez dut sekula parte hartu.

Zein erle espeziekin lan egiten duzu?

Munduan zehar erle mota ezberdinak daude, baina hemen erabiltzen den erlea bertakoa da, erle beltza, ingurura hobetoen egokitzen dena da.

Eta erle-ontzi batean zein erle mota daude?

Batetik Erle-erregina dago, erle-ontzi batean erregina bat egoten da eta emea da, arrautza guztiak berak jartzen ditu. Beste erregina bat jaiotzen bada, bien artean borroka egiten dute eta ahulena hil edo alde egiten du. Erregina batek hiru-lau urte irau dezake erle-ontzi batean. Ondoren beste erregina bat jaioko da hau ordezkatzeko. Batzuetan erregina ez bada oso ona, beste erregina bat ateratzen dute aurreko erregina bidaltzeko. Erregina kanporatzean enjanbreak gertatzen dira.



Bestetik Erle-mandoa (zanganoa), hauek Erregina baino ugariagoak dira eta arrak dira. Erregina ernaldtu edo umetzeaz arduratzen dira. Udazkenean erle-mando guztiak hil egiten dira (neguan ez dagoelako aktibitateirik). Udaberrian berriro sortzen dira. Erle-mando eta Erle-langileen habiak oso ezberdinak dira, gainera Erle-mandoak handiagoak dira.

Eta azkenik Erle-langileak, hauek ugariak dira eta emeak, beraiek arduratzen dira janaria ekartzeaz, erle-ontzia garbi mantentzeaz, umeak zaindu eta elikatzeaz...

Zer da enjanbrea?

Erle bola handi bat da eta hau erregina alde edo bidali dutenean gertatzen da. Batzuetan, Erregina gustura egon arren ez dauka lekurik lana egiteko eta alde egiten du. Erreginarekin batera bere gertuko erleek ihes egiten dute eta erlauntza horrek ez du eztia izaten, oso ahulduta geratzen delako eta bere denbora behar du indartzeko. Barroa asko daukaten erlauntzetan ere enjanbreak gertatzen dira.

Zeri esaten diozu Barroa?

Akaro izeneko mozorro txiki bat da eta erleen parasitua da, mundu guztian zabaldua dago. Hau da erleen gaixotasunik garrantzitsuenak. Erle-ontzian ondo zaindu behar da garbitasuna eta hezetasuna, honegatik erle-ontziak leku eguzkitsu eta aireztatuan eduki behar dira. Honetaz gain badaude beste gaixotasun batzuk: Loke amerikarra eta europarra... baina oso gutxi agertzen dira.

Urte baten zehar zein zaintza egiten zaizkie erleei?

Urteko garairik garrantzitsuenak udazkena da, negura begira erlea oso fuertu utzi beharra dagoelako, horrela udazkenean indartsu badago, udaberrian ere horrela egongo da. Negu partean ez dute lanik egiten eta ezin dira ireki, bestela hil egiten dira. Esaten da 13°C-tik behera ez dela erle-ontzia ireki behar. Indartzeko jana ipintzen zaie (ezti, glukosa... nahasketa bat). Udaberrian, Barroaren aurkako lehenengo tratamendua egiten da, ondoren abaraska edo koadro berriak sartzen dira

pixkanaka eta zaharrak kendu (belztutakoak) eta beti alderdi batetik, beraiei koadro berriak gustatzen zaizkie lanerako. Horrela apirila maiatza aldera loreak ateratzen direnean eztia, polena... egiten hasten dira. Udaran, segun nolako eguraldia egin duen azkarrago edo beranduago kentzen zaie eztia. Gipuzkoako txapelketa irabazi nuenean, ekainean atera nuen eztia, dena operkulatuta zeukaten.

Zer da abaraskak operkulatuta egotea?

Erleek abaraskak ezti betetzen dituzte eta beraiek ikusten dutenean giro hezetasuna baxu dagoela, eztia mintz edo tela batekin babesten dute, eztiak ez dezan hezetasunik hartu, horrela ezti ez da hondatzen. Aurten adibidez, uztaileen ezti operkulatu gabe zeukaten eta ezti jasotzeko garaian hau garrantzitsua da. Erlezain bati gertatu omen zitzaion, gaztaina ezti operkulatua egon eta kriston hezetasuna edukitzea eztiak.

Eztia jasotzekoan altzak erabiltzen dira?

Behoko kaxa erlez beteta dagoenean eta ez ihes egiteko, gainean beste kaxa bat edo kaxa erdi bat ipintzen zaie, kaxa hauei esaten zaie altza eta erleak indarrean badaude, goiko kaxetan ezti egiten hasten dira. Gero ezti jasotzerakoan altza hauetako ezti jasotzen da.

Normalean erreginak ume aldia bobil batean egiten du, honen inguruan polen pikorrak egoten dira eta ondoren ezti.

Nola jasotzen da eztia?

Eztia operkulatuta dagoenean, altza horiek hartu eta etxera ekartzen dira kaxa hermetiko batzuetan. Ondoren abaraskak zentrifugagailu batean ipintzen dira, aurrez operkulu mintza kentzen da. Ezti guztia abarasketatik atera ondoren, ezti filtro batzuetatik pasatzen da, zikin nagusienak kentzeko eta ontzi batzuetan uzten da geldirik hamabi edo hoge egunetan, honela zikin partikula txikiak azalera igotzen dira. Ondoren fraskoetara pasatu eta gordetzen da, inongo beste tratamendurik gabe.

Eta ezti jaso ondoren?

Ezti frasko bat hartu eta Zaldibiara josten naiz, zenbateko hezetasuna daukan jakiteko. Erle-ontzietan, ezti kendu ondoren, udazkena bitartean erleek jasotzen duten ezti beraientzako izaten da, udazkenean barroaren aurkako tratamendua ipintzen da (albeitariak erabakitakoa) eta indarra izan dezaten azukre ura edo glukosa jartzen zaie.

Zer gertatzen da Asiar Liztorrarekin?

Bertoko liztorra baino askoz handiagoa da, bere ugalketa oso azkarra da, milaka habi egiten dituzte. Hemengo liztorrak baino hamar aldiz erreproduktzio azkarragoa dauka. Beraien itxura nabaria da, liztor beltz handiak dira, 3-5 cm-koak, hanka horiak eta ipurdi aldean bi marra hori. Habiak bola handi batzuk dira eta normalean zuhaitz puntetan egiten dituzte. Lehenengo fasean, udaberrian, erreginak ibiltzen dira eta tranpetan harrapatutako erregina baikoitzeko habi bat gutxiago egongo da. Bigarren fasean, habia egiten dute eta liztor ugari sortzen dira eta hauek erleak, bertako mozorroak... jaten dituzte. Hirugarren fasean, udazkenean, azukre eta fruitu bila hasten dira, horrela negurako erreserbak hartu eta lur-azpian gordetzen dira eta habi handi horiek hutsik geratzen dira.

Nola babesten duzue bertako erle beltza?

Tranpak jartzen dizkiegu, hauek 1,5 litroko plastikozko ur botilekin egiten dira. Modu horretara, barrura sartzen



Erlautzenjekua Urkin



Liztorrentzat tranpa



Eztia ateratzeko zentrijugadora



Aberaska operkulatua

dira baina ezin dute kanpora atera. Barruan zerbeza jartzen diegu, liztorrei asko gustatzen zaie baina erleei ez. Zerbezarekin batera siropea, ardo zuria, patxarana... jartzen zaie.

Aurreko urtean asiari liztor bat harrapatu nuen, baina aurten hirurogeita hamar harrapatu ditut. Beste erlezai- nek ere aurten asko harrapatu dituzte.

Momentu honetan zenbateko ekoizpena daukazu?

Zazpi erle-ontzi dauzkate eta egiten dudan ezti guztia etxerako da, ez dut ezer saltzen.

Etorkizunari begira zer asmo daukazu?

Berdintsu segitzea eta pixkanaka semeak hartu dezala. Hasieran gaizki pasatu nuen, baina orain asko gustatzen zait, niretzat eskape bat da eta gainera entretenimendua. Negu partean koadroak konpondu, koadroak garbitu... airtzen naiz

Anekdotarik izan duzu?

Askotan erleen aurrera jantzi edo babesik gabe joaten zara, bat-batean ateratzen dira eta korrika egin behar ziztada mordo batekin.

Behin erlezain batek mediku argentinari bati galdetu zion *“uste ha dicho que todos los que no somos alérgicos a la picadura de las abejas, deberíamos recibir alguna picadura, pero los que recibimos 80-100 picaduras, ¿eso es bueno para la salud?”* Eta medikuaren erantzuna: *“eso se podría comparar con el vino, un vaso de vino es bueno, pero 80-100 vasos de vino...”*

Askotan esaten dute artritis eta artrosiarentzat oso ona dela erleen ziztada, jende askok hobekuntza handiak nabaritu ditu. Gaixo dagoen jendeak esaten du, erleen ziztadek mina egiten dutela, baina artritis edo artrosiak gehiago.

Erleek ez dute edozein lekutan ziztatzeko, adibidez koinatuari, kaderatik operatu ondoren segan ari zela, erleak ipurdi gainera joaten zitzaizkion ziztaztera. Erleek sentsibilitate berezia daukate, gainera badakite antzematen jendearen beldurra eta urduritasuna. ■

3 galdera motz

Zer duzu gustuko Itsasondon?
Herri txiki bezala ematen duen lasaitasuna. Leku onean dago eta komunikazio oso onak dauzka.

Zer botatzen duzu faltan Itsasondon?
Ezer ez bereziki.

Inoiz izan duzun amets bat?
Eguneroko lanean gustura ibiltzea, disfrutatzea, burua okupatua edukitzea.

Itsasondo historian, hiri baten sorrera 1615ean

2015eko ekainaren 11n Itsasondon izan zen “Itsasondo Historian, hiri baten jaiotza 1615ean” izenburuko hitzaldia. Hitzaldi horrekin duela 400 urte gertaturiko garrantzi handiko egintza oroituz nahi izan zen: 1615eko urtarrilaren 26an gertatu zen Ychasondo herriaren bereizketa Villafranca (egun Ordizia) hiritik, zeinaren menpeko izana baitzen, eta bereizketa Gaztelako erregeari hiri titulua erosiz lortu zuen.

Hitzaldi horretan zehar itsasondoarren historian une horren garrantzia azaldu nuen. 1615etik aurrera, Itsasondo hiri burujabe bilakatu zen eta Gipuzkoako historian bere ahotsaren eta buruaren jabe barneratu zen. Hain zuzen, hiri tituluaren erosketari esker, itsasondoarrek Villafrancatik aske geratzea lortu zuten, aspalditik nahi zuten bezala. Aitzitik Ordizia izan zen galtzailea, 1615ean herri asko izan baitziren askatasuna lortu zutenak, eta Ordiziak inguruan zuen eragina murriztu egin zen. Gipuzkoa osoak ere al daketa handiak izan zituen, hiri bilakatu baitziren herrixka ugari.

Itsasondoren bidea askatasunerantz, hiri burujabe bihurtu arte, luzea eta gaitza izan zen, Ychasondoko biztanleak bolondreski lotu baitziren Ordiziara Erdi Aroan eta lotura hau haustea zaila zen. 1399an Ordizia inguruko hainbat leku-tako biztanleek auzotasun-kontratua

izenpetu zuten 1268an Gaztelako Alfontso X.ak fundatu zuen hiriarekin.

XIV. mendea krisialdi garaia izan zen, garai aztoratua, izurriteak, goseteak... ugari gertatu ziren; asko ziren biziraun nahi zutenak eta beste askok beren diru sarrerak eta irabaziak gorde nahi zituzten. Hori horrela, delikuentzia ugaria zen, eta baita lapurretak, usurpazioak, zerga igoerak, liskarrak edo heriotzak ere. Eguneroko bizitza asko gogortzen zuten gertakari hauek.


Arazo horiek saihesteko, Itsasondoko bizilagunek Ataun, Zaldibia, Gaintza, Alzaga, Arama, Legorreta, Beasain eta Lazkaokoekin batera beren inguruko hiri nagusiak, Villafrancak, eskaintzen zituen babesba, laguntza eta abantaila ekonomikoak eskuratu nahi izan zituzten.

1399ko apirilaren 8an leku horietako ordezkariak eta hirikoek adiskidetasun eta auzotasun idatzia sinatu zuten. Honen bitartez alde bakoitzak hainbat betebeharrak eta eskubide beregantatu zi-

tuen. Ordiziak, bere aldetik, bere bizilagun berri guztiak indarkeria orotatik -bai partikularrek bai beste herriek eraginda-koetatik- babesteko konpromisoa hartu zuen. Alkatea izango zen bizilagunen arteko kausa eta liskarretan epaile bakarra. Ordiziakoek ordezkaturiko zituzten Gipuzkoako Batzar orokorretan eta Kortean. Ordizia izango zen herri horien guztien jurisdikzio-burua. Itsasondoko bizilagunek Villafrancakoek zituzten abantaila fiskal, komertzial eta militarrek izango zituzten, Villafranca Oria bailarako hiri komertzial garrantzitsua zelarik. Baina, beste aldetik, kontratuaren bidez bazituzten beste betebeharrak ere: hitza ematen zuten Villafrancaren autoritatearen menpeko izango zirela, Ordiziak ezarritako zergak ordainduko zituztela eta hiri horrekin, beraren zuzendaritzarekin, konpainia militar bakarra osatuko zutela.

Denbora iragan ahala, ezabatuz joan ziren Itsasondoren eta Ordiziaren arteko mendekotasunezko lotura eragin zuten arazoak, eta hiriaren nagusitasunarekiko menpekotasuna ia jasanezina izaten hasi zen. Iritziak desberdinak zituzten hainbat gaietan: mendien ustiapena, zergen banaketa desberdina, Itsasondoko mutilak Ordiziara arma erakustaldietara joan beharra, Batzar Orokorretako ordezkari-tza eza.

Itsasondoren mendekotasun militar, fiskal, judicial eta ekonomikoak ezados-



Consejo y Vecinos del Lugar de Ychasondo en la provincia de Guipuzcoa

REPRESENTANTES DE ITSASONDO
"Martin González de Lesauz, jurado de la dicha colación de lasondo, Juan de Otamendi, Gimeno de Aguirre, Juan Sánchez de Sagastiberri, Juan González de Otamendi, Machin Iñiguez, Fernando de Arbe, Miguel de Basco, por sí y por Miguel su hijo, Juan Martín de Urquía, Juan yerno de Gimeno de Aguirre, Martín de Loyola, Martín Iñiguez de Aguirre, Lope de Arama, doña Micaela de Sagastiberri, moradores que somos en la dicha colación de lasondo"
(C. Echeagaray; S. Múgica: Ordiziako monografía historikoa, 1983).

tasuna eta gero eta arazo larriagoak sortu zituen. Hiriarren gehiegikeriaren aurrean itsasondoarrek egindako protesta batzuk bertan konpondu ziren; baina sarri heldu ziren auzi izatera Gaztelako auzitegi-tara, bereziki erregetzako epaileek kudeatzen zuten Valladolideko Kantze-laritzan.

Arazoa ez zen Itsasondokoa bakarrik. Berdin gertatzen zitzairen hirien baitan aurkitzen ziren Gipuzkoako beste herrixka eta landagune askori. Villafranca ez ezik hiri nagusi bezala ezagunak ziren: Tolosa, Segura eta Hondarribia. Hiri nagusien eta herrixken arteko auziak XVI. mendean izan ziren. Itsasondok bezala, beste batzuk ere bilatu zuten Batzorde Orokorren babesa, baina alferrik, erakunde hau hiri nagusiek kontrolatzen baitzuten eta hauek babes handia zuten Gortean, kontseiluetan eta epaitegietan, non epaiak herrixken aurkakoak izatea lortzen baitzuten.

Bere herrien burujabetzaren eske ari ziren Gipuzkoako guneen egoera XVII. mendean aldatu zen. Ordiziako herrixkek 1615ean lortu zuten beren helburua eta Ordiziatik berezi ziren Gaztelako Felipe III.ari hiri-titulua erosiz. Hiri-titulu horrek eragin zuen Ychasondo aintzinako herrixka udalbatza bilaka zedin eta aintzina-ko hirien maila pribilegiatua har zezan.

Legazpi bailarak 1608an Segura hiritik bereiztea lortu izanak herrixken garai-pena ahalbideratu zuen. Zuzenbide-au-

rrekari honi esker, beren burujabetzaren bila zebiltzan Gipuzkoako hainbat herrixka batu eta elkartu zirelako Felipe III.ari beren herrien bereizketa eskatzeko.

Itsasondok berriro Ordiziatik bereiz-tera bultzatzen zituen arrazoiak zeintzuk ziren azaldu zituen Hazienda Kontseiluan, bere elkargoarekiko gobernu egokiagoa lortu eta erregeari zerbitzu bikainagoa eskaini nahi ziola adieraziz. Horrela, bada, hiri-titulua erosketa eskatzen zitzaion erregeari, Horrelakoak ohikoak baitziren Gaztelan, herri korporazioen arteko hainbat arazo konpontzeko, baita herrixka askoren beren nagusiekiko autogobernu nahia asetzeko ere. Gainera, errege ondasunak ere hornitzen ziren.


1615ean, Villafrancako zortzi herrixkak (horien artean Itsasondo), Segurako zapik eta Tolosako hogeita hiru herrixkatak hamalauk, lortu zuten Gaztelako erregeak hiri-titulua saldu ziezairen, horrela bere jurisdikzio-buruetatik bereiziz. Bereizketa idazkia eta errege-zelula 1615eko urtarrilaren 26koa da, eta Itsasondori jurisdikzio-jabetza eskura jarriko ziona izango zen epailearekiko komisioa urte horretako otsailaren 4an sinatu zen. Dokumentu horri esker, Itsasondok hiri-titulua eskuratu zuen, eta jurisdikzio zibila eta kriminala, goren eta apa-za, inperio hutsa eta mistoa. Horrela lortu

zuen bere askatasuna eta autogobernu ahalmena. Baina oraindik falta ziren Itsasondo hiri bezala onartzeko egintza formalak.

Felipe III.ak bidalitako Hernando de Ribera lizentziatua arduratu zen udal ofizial propioak izendatzeaz, mugarrak jartzeaz, lurralde mugetz, Itsasondoko alkate berriarekiko presoen eta auzien eskualde-penaz, eta hiri berriaren makila, urka, pikota eta kartzela ezartzeaz.

Ordudanik, bertako bizilagunek beren buruak gobernatu zituzten, beraiek ezartzen zituzten arauen bidez, beren usadio eta ohituren arabera. Ohitura horietako bat bizilagunen kontseilu irekian burutzen zen udal karguen izendapena zen.

Askatasunaren eta autogobernura-ko ahalmen propioa lortzea ez zen doakoa izan. Felipe III.ak hiri-titulua-ren prezioa bizilaguneko 25 dukadutan tasatu zuen. Epaileran lehen lana bizilagunen berri jakitea izan zen, hiri berriak zituen errentak edo ondasunak eskuratzeko. Ikerketa desberdinak egin ziren. Lehenak bizilagun kopuru apa eman zuten eta hurrengo miaketa batean, 1616ko azaroko miaketan, bizilagun kopurua bikoiztu egin zen. Azken hau izan zen erabili zena ordaindu beharreko prezioa finkatzeko: 855.469 mrv (2.280 dukadu inguru). Garai hartan kantitate handia zen hau.



CAUSAS DE LA SEPARACIÓN DE VILLAFRANCA

Primeramente que por quanto por parte del dicho lugar de Ychasondo se hizo relación a Su Magestad en su Consejo de Hacienda que el dicho lugar y sus vecinos siendo libre se habían visto y entrado de su voluntad por vecinos de la dicha villa de Villafranca. Y después así an-teniendo con ellos muchos pleitos y al presente los traían en que han ganado y quedan muchos sumos de dinero, sobre prehemencias y cosas que la dicha villa pretende contra el dicho lugar como antes al Juegador y jurisdicción que tiene en él.

Y que con todo mandado en dicho y son muchos los males y daños y molestias que se siguen de la dicha villa, desde lo que en los dichos pleitos con sus mismos vecinos se sigue hacen entre ellos comprendiendo los ganos de la dicha villa.

Y que el dicho lugar tiene terminos, límites y goziador distinto y apartado de la dicha Villafranca, y ella sobre él solamente jurisdicción con todo el fecho de ciudades encomendado quando tenían menos vecinos.

Y que al presente el dicho lugar está muy estropeado y tiene muchos vecinos y si se le quitasen de la dicha villa se entenderia mucho más su población y se introducirían buenos sujetos para goziar la villa.

Tanto más siendo como son todos originarios de la dicha Provincia de Guipuzcoa y descendientes de sus fundadores.

Y por lo tanto acudir mejor y con más provecho a las ocasiones que se ofrecen y pueden ofrecer del servicio de Su Magestad, sin tener necesidad de acudir primero a la dicha villa a quedar su orden.

AYUNTAMIENTO DE ITSASONDO 16 DE NOVIEMBRE DE 1615

-Alcalde : Juan de Urquia
 -Regidores : Martin de Erauscayn y de Sorron y Juanes de Beitia
 -Jurado : Martin de Hercilla
 -Mayordomo bolsero: Juan de Yturrioz
 -Asistentes a la reunión: Martin de Yraola, Juan de Yraola, Juan de Acubia, maese Juan de Urquia, Juanes de Sarasola de Urquia, Miguel de Arrese, Juanes de Urquia Oriomunõ, Domingo de Bengoechea, Juan de Olasagasti, Domingo de Urquia Araurrena, Miguel de

Itsasondoko bizilagunek ez zuten ordaindu beharreko hainbesteko dirutzarik, eta Felipe III.ak baimena eman zuen zeharkako zerga bat jartzeko: sisa bat, hau da, elikagaiak garestituko zituen eta kreditu bat eskatzea ahalbideratuko zuena. Kredituaren bermetzat norberaren ondasunak eta Udalaren errentak izango ziren. Baina hau ez zen eraginkorra benetan Itsasondorentzat, kontuan izanik Itsasondon salerosketak oso urriak zirela, bizilagun gehienak nekazariak izanik, beren uzatietan eta ganadutik bizi baitziren. Horrela, beraz, sisa horrek ez zuen balio erregearekiko zorra ordaintzeko eta, ondorioz, baimena eskatu zen beste diru iturri bat erabiltzeko: itsasondoarrek hainbeste estimatzen zituzten herriko mendien salmenta.

Nolako jarrera izan zuten Gipuzkoako beste hiriek Batzar Orokorretara hogeita hamar hiri berri azaldu zirenean? Tolosa, Ordizia eta Segura ziren galera handienak izan zituztenak, eta protesta egin zioten erregeari, baina Gipuzkoako beste hiriak herrixken alde jarri ziren. Horrela bada, Batzarretako gehiengoak herrixken bereizketaren aldekoa zelarik, 1615ean Felipe III.ak arrazioak izan zituen hiri-tituluen salmenta aurrera eramateko.

Hain zuzen, hiri-tituluen erosketaren ondorioa, Ordiziarengandik askatasuna lortzeaz gain, Itsasondok Gipuzkoako Batzar Orokorretan sarrera zuzena eta pertsonala eskuratzea izan zen.

Itsasondok Elgoibarko Batzar Orokorretan parte hartu zuen lehen aldiz 1615eko maiatzaren 2an, probintzi gobernuko batzarrean botoa emateko esleituak zitzaizkion bost su edo boto bereganatuz. Une horretan Itsasondok igorritako batzarreko prokuradoreak Acubiako Joan eta Sarasolako Joanes izan ziren. Era berean, eserlekua esleitu zitzaizen, bizilagun kopuruaren ohiko irizpidea jarraituz, nahiz eta kasu honetan ere iturriek irizpide desberdinak eskaintzen dituzten: 1615ean Itsasondoko juntakideak 10. eserlekua hartzen zuten korregidorearen eskerraldean eta 1624ean 9. eserlekua erregeak izendatutako korregidorearen eskuinaldean. Gipuzkoa Foru Bildumak agertzen duenez, Itsasondok bere iritzia agertzen zuen eta botoa ematen zuten Legorretaren ondoren, baina Beasainen aurretik.

Teorian, Itsasondok hiri kategoria eskuratuta, bertako bizilagunek ahots pertsonala zuten probintziako gobernuaz arduratzen ziren Batzar Orokorretan. Errealitatean, hiri-tituluen erosketak eragindako gastuak hain handiak eta eramangaitzak ziren Itsasondo bezalako herri txiki batentzat, non menpeko izandako herrixkek batasun bat sortu zuten,



gastuak murrizteko helburuarekin, baina beren nortasuna eta hiri berri bezala hainbeste kosta izan zitzaizen izen ona galdu gabe.

“Oria bailarako sei hirien Batasuna eta Senidetasuna” Itsasondok, Legorretak, Zaldibiak, Gaintzak, Altzagak eta Aramak izenpetu zuten 1615. urtean bertan. Urte horretako azaroaren 26an Batasun horren idazkia Batzar Orokorretan aurkeztu zuten, onar zedin. Bertan finkatzen ziren hiri berri horien arteko txandak, batzarretara ordezkariak bidaltzeko eta batasun honetako egiteko berezi batzuk izendatzeko, eskribautzak seitek bira murrizteko.

Hortik aurrera Itsasondo Batzar Orokorretara joango da, baita ekitaldi militarra ere interes ekonomiko berak zituzten inguruko herriren batek lagunduta. Herri horiek guztiak Bozue Txikiko artzain mankomunitateko kideak ziren eta Ernio Aralarreko larre eta mendien ustiapena egiten zuten elkarrekin.

Historia labur honek 1615.urteak Itsasondoko bizilagunen historian izan zuen garrantzia azaldu nahi izan du. Orduan hasi baitziren beren erabakiak hartzen Gipuzkoa mailan, herri askearen ibilbideari hasiera emanez. Ibilera horretan jarraitzen du. ■

Susana Truchuelo



AVERIGUACIÓN DE VECINOS Y RENTAS

- Investigación noviembre 1614
 - o 50 vecinos/casas y 100 ducados de renta anual
- Cuenta Abril 1616
 - o 115 vecinos /casas ciertos y 6

ARGUMENTOS PARA SUSTITUIR LA SISA POR LA VENTA DE TIERRAS CONCEJILES

"[...] porque el arbitrio de la dicha sisa no es bastante para su desempeño, así por no tener gasto ni comercio como porque los vecinos de la dicha villa hazen prouisión para sus casas, por mayor, para todo el año mediante su agricultura y aprouechamiento del ganado. Por lo qual no ay de que causar sisa que sea considerable para el dicho efecto". "[...] los preguntéis si tienen por bien y consisten que en lugar de la dicha sisa se vendan entre sus vecinos los dichos pedaços de tierras concejiles, montes y castañales

Jubilatuen ekintzak

Uztailak 7 – Tolosa-Alegia irteera

Joan den uztailaren 7an, Itsasondoko apeaderoan trena hartu eta Tolosara abiatu ginen. Tolosako tren geltokian jaitsi eta tipi-tapa Alegi aldera abiatu ginen bidegorrian zehar. Alegiko sarreran dagoen "Ruta 33"an hamaiketako egin ostean, Alegirako bidearekin jarraitu genuen. Alegin aurrez bazkaria hartuta genuen eta ordua iritsi zenean gerturatzan joan ginen, tripa betetzeko asmoz. Bazkalostean, nahi zuenak oinez eta nahi zuenak trenez, Itsasondora itzultzeko biderei ekin genion.

Uztailak 21 – Pasai Donibanera txangoa

Pasai Donibaneko puntetako pasealekuaren bukaeran kantina-taberna bat dago. Hura ezagutzeko asmoz joan ginen uztailaren 21ean Bizi Nahi elkarteko zenbait kide Donibanera. Trenez Oreretara joan ginen, handik batzuk autobuses eta beste batzuk oinez, Donibaneko plazan jarri genuen denok biltzeko hitzordua. Kantinara iristeko modu bakarra oinez joatea da, eta Donibaneko plazatik 15-20 minutu inguru daude. Oso txango erakargarria da, portuko sarreraren paretik baitoa. Kantinan ogitartekoak, pintxoak, sardina erreak, edariak eta abar zerbitzatzen dituzte. Aurrez bazkaritarako lekua hartuta genuenez, iritsi bezain pronto eseri eta bapo bazkaldu genuen. Eguraldia ere ezin hobe portatu zen eta txango benetan ederra egin genuen.

Abuztuak 14 – Festa bezperako bazkaria

Aurten, Andra Mari bezperako afaria egin beharrean bazkaria egitea adostu zen, eta egia esan, urteetan aforiak izan duen arrakasta berdina izan duela esan genezake. 14:00etan genuen elkartera gerturatzeko hitzordua eta ordua hurbildu ahala, jendea ere txintxo-txintxo bertaratzan hasi zen.



Tolosako Txangoa, Alegiko jatetxean.

Tipi-Tapa

Ekainean eta uztailan izan duen arrakasta ikusirik, irailean ere Tipi-Tapa programarekin jarraitzeko asmoa azaldu zutenez parte hartzaileak, Ongizate lan taldeak antolaketaarekin jarraituko duela adierazi du. Orain arte bezala, astearteetan 17:00etan izango da hitzordua. Gogoratu, sasoi onean eta ez hain onean dagoen edozeinentzako neurria egindako paseoak direla; ibilbide errazak eta edonork egiteko modukoak. Beraz, animatu!

Podologia zerbitzua

Maiatzean jarri zen zerbitzu hau martxan. Gogoratu bi hilean behin eskaintzen dela Bizi Nahi elkartean. Hurrengoak irailean eta azaroran izango dira, eta izena eman nahi baduzu elkarteko batzordeko kideekin jarri beharko zara harremanetan. ■



Abuztuak 14ko bazkaria.



Abuztuak 15, Andra Mari jaia.



Grupo JASOk bere lan-taldea elkartu zuen 50. urteurrenean

Altxatze-makineria sektorean lider den Grupo JASOk ekitaldi handi batekin ospatu zuen bere 50. urteurrena, pasa den ekainaren 26an.

JASO Tower Cranes (dorre-garabien fabrikatzailea), JASO Industrial Cranes (zubi-garabien fabrikatzailea) eta JASO Elevation Systems (jasogailuen fabrikatzailea) enpresetan lan egiten duten itsasondorarrak, idiazabaldarrak, aguraindarrak eta Espainiako zenbait puntu ezberdinetatik etorritako 500 lagun elkartu ziren, fundatzaile, bazkide eta langileen artean.

Idiazabal eta Itsasondoko lantokiak bisitatu ondoren, Getariako Balenciaga museoa elkartu ziren denak, eta Grupo JASOk bazkide-fundatzaile den eta gaur egun lehendakari den Jose Joaquín Susperreguren hitzaldiarekin eman zitzaion hasiera ekitaldiari.

Harek ibilbide bat egin zuen taldearen historia luzean zehar, eta hona hemen esandako garrantzitsuenak:

JASO 1965an sortu zuten, 25 urteko 5 gazteek: Francisco Guesalaga (tornularia), Julian Garmendia (galdaragilea), Fernando Alustiza (argiketaria), Jose Joaquín Susperregui (mekanikoa) eta Imanol Sarasola (merkataritzaren enpresaria). Bakoitzak 50.000 pezeta jarri zituen, eta egin behar handiekin hasi ziren: lokala egokitu, makinak eta lantresnak erosi eta abar.

Beraien helburua 500, 1.000, 2.000 eta 5.000 kg. altxatzeko balioko zuten 4 polipasto mota eraikitzea zen.

Garapen oso azkarri izan zuten. Merkatuaren beharretara egokitzen eta berrikuntzak sartzen joan ziren, gero eta garabi handiagoak eta konplexuagoak eginez. Horretarako, dena saltzen omen zuten komertzial bat zuten, Imanol; eta diseinatzeko, berriz, fenomeno bat omen zen Lorenzo Larrearen laguntza zuten.

1972-1973an, orga irekiko lehenengo garabiak eraiki zituzten Haitiko fundizio baterako eta lan harek ospe handia eman zion JASOr.

1973an, Jaso Equipos de Obras sortu zuten Idiazabalen, dorre-garabiak eraikitzeko. Urte t̄erdian eraiki zen lantokia, eta 1975an lehenengo garabia kaleratu zen. Iñaki Machainen jakinduria funtsezkoa izan zen han. Julian Garmendia zen produkzioaren arduraduna eta gerentzia Jose Joaquín Susperregiren esku zegoen.

Aurrerago, 2000. urtean, hirugarren lantokia sortu zen, GOIAN; jasogailuak, lanetarako aldamiu eta plataforma elektrikoak eta aerosorgailuen mantenimendurako jasogailuak eraikitzeko, besteak beste.

Gaur egun, fundatzaileetatik hiruk bakarrik ospatu ahal izan dute 50. urteurren hau. Beste biak duela gutxi zendu ziren: Fernando Alustiza (1995an taldea utzi zuena) eta Francisco Guesalaga, urteurrenean bereziki gogorarazi nahi izan zutena, bere aparteko dedikazio nekaezina

zela eta. Zendutako Felipe Artano eta Felipe Alecha ere gogoan izan zituzten, oinarrizko bi enpresetan behin behineko zutabeak izan baitziren haiek ere.

Eskerrak dagoenezko jubilatutako eta hildako JASOk zuzendari, agintari eta langile guztientzat izan ziren orokorrean.

Ondoren, merkatuaren egoera analizatu zen. Aipatu zen JASOK hasieran merkatu nazionalerako bakarrik lan egiten zuela eta 1990 inguruan, Europar Batasunean sartzearrekin batera, hasi zela esportazioetan.

Gaur egungo krisiak garabi industrialen salmentak %30 jaitsi zituen eta dorre-garabien salmentak %80. Garabi industrialen kasuan, bezeroa sektore ezberdinetakoa denez, eramangarriagoa izan da jaitsiera. Dorre garabien kasuan ordea, 2008 urtetik egoera limitea izan da eta esfortzu eta sufrimendu askoren ondoren, orain bai, badirudi esportazioak direla medio, errekupeazio bidean dagoela.

Krisiak gogor eraso dio taldeko enpresa gazteenari ere, GOIANi. Eraikuntzarako plataformen merkatu nazionala galdu zuen eta eolikoentzako jasogailuen salmentak ere jaitsiera handia izan zuen. Bestalde, barneko gestioan zenbait arazo ere izan ziren eta hori guztia taldearen laguntzaz konpondu nahian dabiltaza orain.





1. Noiztik zabilta JASOn lanean eta zein postutan aritu zara?
2. Zein izan da JASOren bilakaera hor zaudenetik gaur arte?
3. Anekdotaren bat kontatzekotan...



Jaso 1970. urtean

Egungo egoera kontutan izanik, hau guztia gainditzeko helburu hauek lortu beharra daukatzela argitu zuen Jose Joaquín Susperregik:

- 1.- Teknikoki aurreratua diren garabi eta ekipamenduak, prezio eskuragarrietan.
- 2.- Merkatu internazionalerako prestatua dagoen talde Komertzial bat.
- 3.- Ingelesez erantzun ahal izango duen pertsonala enpresako departamentu guztietan. Garabia dagoen lekura joateko prest dauden teknikariak, muntatzaileak, soldatzaileak eta abar.
- 4.- Kanpoko bazkideekin elkarlanean aritzeko gai den antolaketa malgu bat. Zentzu horretan, zubi garabien fabrikatzailea den JASO INDUSTRIALEK bide luzea darama jadanik, Mexiko eta Argentinan lantokiak ditu eta beste hainbat herrialdetan ere saiatzen ari da. Taldeko beste bi enpresek ere, Equipos de obrasek eta Goianek, bide hau jarraitu beharko dute behar izanez gero, beraien konpetentziak egin duen bezalaxe.

Bukatzeko, JASO markak etorkizun ona duela azpimarratu zuen Jose Joaquín Susperreguik, eta ondoren, elkartutako 500 kideak bazkaltzen hasi ziren. ■



Gorka Jauregi Mendizabal

1. 1999. urtetik JASOko langile eta aurretik urtebete Ikaslanekin praktikatzen aritua. Lehenik tailerlean egin nituen bi urte, eta gerotik, bulego teknikoan nabil eskema elektrikoan diseinuan.
2. Tailer txiki bat izatetik, JASO izena mundu zabalera zabaltzera arteko bilakaera izan du enpresak. JASOko garabiak geroz eta lurralde urrunagoetara iristen dira. Denon artean ondo eginiko lanaren emaitza dela pentsatu nahi dut. Gaur egun gaudenona eta aurretik egon zireneka ere, noski.
3. Anekdotak modura, aurten, JASO sortu zeneko 50. urteurrena ospatu dugu. JASOko talde guztia, langile ohiak barne, Getariko Balenciaga Museoa elkartu ginen bazkari bat eginda urteurrena ospatzeko. 500 lagun edo elkartu omen ginen!



Jose Manuel Mendizabal

1. 1965eko azarotik 2007ko apirilera arte lan egin nuen JASOan, beti tornulari gisa.
2. JASOren bilakaera oso ona izan da; bi krisialditan aurrera egin du JASOko, 80ko hamarkadakoan eta gaur egungoan, eta ez da gutxi. 80ko hamarkadako krisialdian ez genuen lan karga gehiegi sumatu. Bestalde, bertan hazi eta bertan geratzeko ahaleginak egin ditu beti enpresak.
3. Ordiziako tailer batean lanean nenbilerela eskaini zidaten tornulari lana JASOan. Hasiera hartan, Imanol Sarasola, Julian Gardemia, Susperregi eta Fernandezekin bilera batean elkartu nintzen, eta orduan Imanol Sarasolak esan zidan: "Ba al dakik ze izen jarri diogun enpresari?"... "Ba "JASO", eta horrek badakik ze esan nahi duen ezta? enpresa jaso behar dugula", erantzun zidan.



Ignacio Aranburu

1. 1965etik 2011ra arte eta tailerreko ia postu guztietan.
2. Enpresa sortu zenean hasi nintzen bertan lanean. Herri erdian zegoen enpresa txiki hura gaur egun den enpresa garrantzitsuan bilakatzen ikusi dut.
3. Hasierako garai haietan muntaiak egitera ahal zen bezala joatea tokatzen zitzaigun. Behin, Eibarrera joan behar izan genuen Vespa baten gainean. Tresna guztiak moto gainean genituela abiatu ginen Deskargan gora, motoa ezinean geratu zitzaigun eta bultzaka-bultzaka goraino igo behar izan genuen. Eta behar gabe, aldiz, beldurrez jaitsi ginen noiz eroriko ote ginen jakin gabe. Halako batean Eibarrera iritsi ginen!



Miguel Garcia

1. Fermin Mujika jubilatzeaz zegoela hasi nintzen JASOan, baina ez naiz gogoratzen zehazki zein urtetan izan zen hori. Gero, 1996ra arte egon nintzen bertan lanean. Bertako zaintzailea edo guarda izan nintzen.
2. Aurrerapen handiak egin dituen enpresa bat da, ez da lan faltarik inoiz izan eta beti hazten egon da.
3. Behin izan nuen esperientzi txar bat, lapurtzera sartu ziren baten. Zutabe batera lotu eta begiak estali zizkidaten. Horrela pasatu nuen gaua, goizeko 6:00ak arte; hurrengo erreleboa iritsi arte. Ez zidaten minik egin behintzat.



27. Ibilbidea

Ataun (San Martin-Amondarain-San Martin)

San Martingo plazatik atera eta San Gregorio alde-rantz goazela errepidea jarraituz, Troskaeta tabernaren ondoan dagoen iturritik gora hasiko dugu ibilbidea. Arrasto zuri-horiak jarraituko ditugu, Intxustiko iturri alderantz. Lasarteko bidegurutzera (Enirio, Errekabeltz, Intxustiko iturrira... hemen bost bide elkartzten dira) iristen garenean ezkerreko bidea hartuko dugu, Amondarain aldera. Pista zabal honetatik laster iritsiko gara Amondarain baserrira. Ataritik behera errepideri jarraitu eta berehalaxe ezkerretara egingo dugu. Asfaltozko bidera iritsitakoan, beheraka jarraituko dugu hileriraino. Honen atzean dauden eskaileretatik jaitsiko gara eta laster egongo gara San Martingo Paskualiturriin. ■

Iraupena: Ordu bete eta 45'

Ibilbidea:
San Martin - Amondarain: 75'
Amondarain - San Martin: 30'





01 Paskualiturri



02 Aizkoate



03 Esnaola etxe-berri




04 Txindoki eta Gaztelu



05 Amondarain



06 Astigarraga-Arrondoa



07 San Martin



Urkiye eskolaren kurtso bukaerako festa

Urruti geratzen zaigu jada kurtso bukaeran egindako festa, baina ezin izan dugu aukera hau pasatzen utzi gogorarazi gabe.



Ekainaren 19an bildu ginen kurtsoari agur esateko. Goizean goiz bildu ginenok, 60 heldu eta 69 ume-arentzako bazkarirako gauzak prestatzen hasi ginen. Juanan sukaldaria suaren inguruan ibili zen dena prest eta puntuan egon zedin.

Goizean, umeak LH5 eta LH6koek antolatutako jolasetan ibili ziren. Ondoren, eskolatik kalejiran jaitsi ginen plazara irakasle, guraso eta umeak. Jaitsi ginenerako, suak berotuta, dena prest zegoen bazkaltzen hasteko. Lehendabizi umeen txanda izan zen eta gero irakasle eta gurasooi tokatu zitzaigun.

Tripa bete eta gero LH5 eta LH6koek emanaldia eskaini ziguten: "Aupa zuek, zein ondo egiten duzuen!

Gero, pala txapelketako dominen banaketa egin zen, eta ondoren, 6. mailakoen agurra etorri zen. Oso hunkigarria izan zen benetan. Eskerrik asko urte hauetan zuen bi-zipenak gurekin konpartitzeagatik! Hemendik aurrera ondo-ondo segi.

Umeak apar festarako irrikan zeuden eta eguzkiak keinu bat egin zigun une horretan! Zein ondo pasatu zuten!

Meriendarekin eman genion bukaera egun zoragarria izan zenari.

Mila esker parte hartu zenuten guztiei! Denon artean Itsasondo egitea posible da! ■



Segurtasuna interneten (I. atala)

Atal honetan, oso modu oinarrizkoan, gure ordenagailua eta informazioa interneteko arriskuetatik edota birusetatik nola babestu behar den argituko dugu. Horretarako, hainbat tresna ikusiko ditugu. Tresna hauek oinarrizkoak dira, eta gutxienez hauek, denok eskura eduki beharko genituzke.

1. Antibirusa

Denok dakigu interneten ibiltzean gure ordenagailuan birusak sartzeko arriskua egon daitekeela. Batez ere, joko edo abestiak deskargatzean, eta argazkiak edo bideoak ikustean gertatzen da hori. Birusak sartzea saihesteko, antibirus bat instalatzea komeni da.

Antivirus bat instalatuta, gure ordenagailuan birusik ez izateko %70eko aukera lortzen dugu.

Baina nolako antibirus mota jarri behar dugu? Mota askotako antibirusak aurki ditzakegu merkatuan. Hortaz, antibirus ezberdinak probatzea besterik ez zaigu gelditzen.

Bi motatakoak izaten dira: alde batek, askeak edo dohainik direnak; eta bestetik, lizentziakoak (ordaindu beharrekoak). Oinarrizko funtzioak betetzen dituzten antibirus gehienek antzera funtzionatzen dute. Beste kontu bat da, zer-nolako potentzia exijitzen diogun ordenagailuari, edota nolako babes mota ematen digun aukeratutako antibirusak. Gainera, kasu batzuetan doakoak lizentziako antibirusak baino hobekak izan daitezke.

Doako antibirusei dagokienez ezagunenak AVG eta AVAST dira. Antibirus horiek gure fitxategiak berraztertze oso onak dira. Azkarrak eta fidagarriak dira, eta nahikoak dira programa horiek gure ordenagailuak babesteko. Arazo bakarra daukate: antibirus horien zenbait tresna (firewall, segurtasun kopia...) erabili ahal izateko ordaindu egin behar da.

Lizentziako antibirusetan erabilienak, berriz, honako hauek dira: PANDA, NORTON, ESET-NOD32, KARPEKY. Azken horiek antibirus programaren baliabide guztiak erabiltzeko aukera ematen digute, doakoek ez bezala. Horixe da, hain zuzen ere, doako eta ez doakoen arteko aldea. Lizentziako antibi-

rusak ateratzen dituztenek, doako bertsioak ere ateratzen dituzte jendeak beraien produktuak proba ditzan; baina noski, bertsio horiek mugatuak izaten dira.

Panda eta Norton antibirusak gehienbat enpresetan erabiltzen dira, bertan nahiko ordenagailu indartsuak izaten baitituzte. Etxeko erabilerarako, aldiz, ESET-NOD32 edo Karpesky ere asko erabiltzen dira.

Lizentziako antibirusak noizbehinka berriro egin behar izaten dira. Berritze horiek, hileroko, 3 hiletik behin, 6 hilean behin edo urtean behin egin beharko dira eta ordaindu egin behar izaten dira. Horrela, antibirusaren birus zerrenda handitzen joaten da babes gehiago eman ahal izateko. Doakoetan ere berritzen joaten dira, baina beranduago ateratzen dira beraien eguneratutako bertsioak, eta gainera, ez birus zerrenda guztiak. Horregatik, beraien berritze prozesuak konstanteak izaten dira.

2. Firewall (Suebakia)

Firewall asko antibirusekin batera etortzen dira, eta Windows-ek ere bat ekartzen du. Firewall-a ez da birusak ezabatzeko sistema bat, edota birusak detektatzeko alarman bat. Firewall-aren eginkizuna, internetetik sar daitezkeen kanpoko elementuak blokeatzea da. Adibide zehatz bat jartzearen, asko entzuten diren "Troianoak" edota "Malwareak" saihesteko erabiltzen da.

Interneten ibiltzen garenean, hainbat zerbitzaritara konektatzen gara. Adibidez, gure helbide elektronikora sartzeko, edota sarean jokoetan aritzeko zerbitzuetara sartzen garenean. Txat, Messenger, Skype eta antzekoekin ere beste zerbitzaritara konektatzen gara, beraien programak erabili ahal izateko eta beste guneetako jendearekin komunikatu ahal izateko.



Beraz, gure ordenagailua interneteko sare baliabideari esker, programa hauen zerbitzaritara konektatzen da, lehen aipatu ditugun ekintzak egin ahal izateko. Baina bitarte horretan (gure ordenagailua eta zerbitzariaren arteko interneteko bide horretan) "Troianoak" eta "Malwareak" topatu ditzakegu eta gure ordenagailuan sar daitezke, gero birus batekin kutsatzeko asmoarekin.

Zeini ez zaio gertatu, Internet Explorer, Mozilla Firefox edota Chrome ireki eta bat-batean pantaila iragarkiz gainezka azaltzea? Hori gertatzea "Troiano" batek eragiten du. Noizbait, nahi gabe konektatuko ginen Emule-ra edo libururen bat jaisteko web guneren batera adibidez, eta baliteke "Troianoa" orduantxe sartu ahal izatea.

Horretarako daude Firewall-ak; kanpoko eraso horiek saihesteko. Lehen esan bezala, antibirus gehienak Firewall-ekin etortzen dira, eta Windows-ek berak ere ekartzen du.

Firewall-ari esker, "Troiano" bategatik birus bat sartzeko arriskua %25era murrizten dugu. Beraz, antibirusa eta Firewall-a ondo konfiguratu eta behar bezala erabiltzen baditugu, birusen aurrean %95eko babesa izango dugu; hau da, soilik %5eko arriskua.

Hurrengo zenbakian azalduko dizuegu nola saihestu gelditzen den %5a. Nahiz eta 100% babesteko tresnak eduki, ez du esan nahi deskuidu batean birus bat sartzeko arriskurik ez dagoenik. Birus zerrenda eguneratu gabe baldin badago, edo Firewall-a edozein arrazoi-erengatik desaktibatuta egonez gero, birus eta "troianoak" sartzeko aukerak egon daitezke.

Hurrengo atalen, ikusiko dugu zer diren HTTPS:// internet helbideak eta ingeniari-tza soziala. ■



Mendekotasun legearen berrikuntzak

2007an Mendekotasun Legea martxan jarri zenez geroztik, Euskal Herrian pixkanaka joan da ezartzen eta onuradunen eskubideak bermatzen. Orain arte, lege honek mendekotasun larria eta ertaina zutenei eskaintzen zizkion laguntza ekonomikoak.

Orain, ordea, legea bere osotasunean dago ezarrita esparru honetan, eta 2015eko uztailetik aurrera, 1-1 graduako mendekotasun maila (25-39 puntu) dutenentzat ere zabaldu ditu Foru Aldundiak laguntza horiek, 2015-05-05eko Diputatuen Kontseiluaren akordio bitartez.

Laguntza ekonomikoak honako hauek dira (1-2 gradu-koen kopuru bera):

- Familia inguruko zaintzetarako: mendeko pertsona etxeko/familiako norbaitek zaintzen duenean, 180€.
- Laguntza pertsonala: mendeko pertsonaren zaintza kanpoko pertsona batek eskaintzen duenean, betiere lan kontratu baten bidez, 300€.
- Zerbitzuari lotutako diru-laguntza: mendeko pertsona, egoitza plaza publiko baten zain dagoen bitartean, egoitza pribatu batean dagoenean, 300€.

Laguntza horiek, eskatu eta hurrengo hilabetetik aurrera jasoko dituzte eskatzaileek, betiere baldintza guztiak betetzen dituztela ziurtatuta eta dokumentazio guztia aurkeztuta.

Horrelako egoera baten aurrean baldin bazaude edota eskubideren bat izan dezakezula uste baduzu, jo lasai Udal Gizarte Zerbitzuetara eta han azalduko zaizkizue prozeduraren nondik norakoak. ■

Urkiko iraileko jaiak 2015

Irailaren 12an (larunbata), iluntzeko 20:00etan suziria jaurtitzearekin batera eman zitzaien hasiera jaiak.

Gero, lagun arteko afaria egin zen elkartean eta ia jangela guztia bete zen. Ondoren, erromeria egon zen LAJA eta MIKEL trikitilariekin. Azken hori, goizeko ordu txikietaraino luzatu zen; jendea dantzarako gogoz zegoen eta trikitilariak lanerako nagirik ez zuten ekarri. Oso giro alai eta umoresuan igaro zen larunbat gaua (edota igande goizaldea).

Irailaren 13an (igandea), goizeko 11:00k aldera hasi zen jendea inguratzen, hamaiketako egiteko; bezperan galdu-tako indarrak errekupeatu beharra zegoen. Ordu horretarako bertan ziren ANSORREGI eta OLARTE trikitilariak; hamaiketako ondorena ederki alaitu zuten. Bazkal aurretik, dantza saioa eskaini ziguten plazan horretarako prest zeudenek.

14:30 inguruan eman zitzaion hasiera bazkari goxo eta oparoari. Siestarako denborarik gabe, herri kirolariak eta zaleak hasi ziren inguratzen, eta aurrez hitzordua jarri bezala, 18:30ean eman zioten hasiera ekitaldiari.

Lehenbizi, Xabier ARANBURU "GUZTA" harri-jasotzailea hasi zen lanean, 150 kiloko errektangeluarrari 5 altxaldi emanez.

Ondoren, zutikako kana erdiko bana ebaki zuten ARROS-PIDE-UGARTEBURU eta OLASAGASTI-LARRAÑAGA bikoteek, elkarren aurka egindako norgehiagokan. Aurreneko bikotea izan zen azkarrena lana amaitzen.

"GUZTA"ren bigarren saioa 100 kiloko kubikoarekin izan zen eta 15 altxaldi eman zizkion.

Jarraian, aizkolariek lan luzeagoa izan zuten, 4 kana erdiko eta 2 oinbiko ebaki behar izan baitzituen bikote bakoi-tzak. Pare-parean hasi arren, OLASAGASTI eta LARRAÑAGA nagusitu ziren azken enborrean.

Amaitzeko, "GUZTA"k 100 kiloko bolarekin plazari buelta eman zion jendearen aurrean agurrak eginen.



Plaza garbitu ondoren, ANSORREGI eta OLARTE trikitilariak erromeriari ekin zioten, eta plaza dantzariz bete zen.

Irailak 14ean (astelehena) GURUTZE DEUNAREN EGUNA izan zen. Hamaiketan meza ospatu zen Urkiko ermitan. Ondoren, ermita hustu eta elkarteko jangela bete zen hamaiketako egiteko. Ordurako bertan ziren OSTOLAZA eta ANDONEGI trikitilariak. Eguerdian, bazkaria egin zen elkartean; eta iluntzean, erromeria OSTOLAZA eta ANDONEGI trikitilariekin.

Tartean, festetan, saskiaren zozketa ere egin zen. Zorteduna Miguel Gorostizu izan zen eta bertara agertu zen saskia jasotzera. ZORIONAK!!!

Horrela amaitu ziren aurtengo Urkiko agorreko Santikutz jaiak. ■

Jubilatu eguna

Irailaren 27an Jubilatuen Eguna ospatu genuen Itsasondon. Aurtengoan, 60 pertsona inguru elkartu ginen eta mezarekin ekin genion egunari. Ondoren, hamaiketako egiteko Jubilatuean elkartu ginen eta azkenik, bazkaria izan genuen Nautiko jatetxean. ■



Hamaiketako egiten Bizi Nahi elkartean

Mendira goaz


Belaunaldi bakarraren bueltan, gure gizarteak mendia-
rekin dituen harremanak zeharo aldatu ditu. Lehen
beharrak agintzen bazuen, orain zerbait berezia egiteko
gogoak besterik ez gaitu eramaten. Baina norberaren arra-
zoiak ez dute besterenekin zertan bat eginik. Aralarren pa-
satako egunak ongi erakutsi digu motibazioak
adin-taldeetan ere banatu daitezkeela.

Eta txikienetatik hasita: nolabaiteko askatasuna, mu-
garik gabe ibiltzea, nekea, jolas berriak asmatzeko auke-
rak, gaua inguru berri baten pasatzeko parada..., gauza
ugari ongi pasatzeko.

Nerabeek, bere aldetik, jokabide bat baino gehiago
erakutsi digute. Bat aipatzearren, talde bezala jokatzeko
azaleratzen duten sentimendua. Gizakia abere soziala
dela nonahi erakutsi digute, nahiz eta taldearen abantaila-
lak eta deserosotasunak agerian utziz sarritan.

Eta helduak, ba hori, eguneroko eginbideak mendira
eraman eta bakoitzaren etxean bailiran ibili. Lotuta beraz
eta, hala ta guztiz ere, tarteka aske: mendiari so, zuhaitz
eta lainoez harrituz, perretxikuak aurkituz... Zentzuak
amutzu bazaizkigu ere, ez dago zertan galdutzat emanik.

Eta han geratu dira haizeak eta harkaitzak, urak eta zu-
haitzak, hurrengoan ere bizirik darraitela ziurtatuko duen
norbaiten zain. ■



Itsasondoko III. Garagardo Azoka

Azken bi urte hauetan egin den modura, Arbel Aitz elkarteak, Itsasondoko Udalaren babesarekin, III. Garagardo Azokaren antolaketa ekin zion.

San Juan eguneko suarekin eta sardina janarekin eman zitzaion hasiera udako ekitaldiei. Handik egun batzuetara, uztailearen 3an eta 4an hain zuzen, ukondo ederrak dastatzeko eta garagardo freskoa edateko aukera paregabea izan genuen herriko plazan.

Ostiral arratsaldean, egindako deialdiari erantzunez, Itsasondoko herritarrek ez zuten huts egin eta frontoi inguruan jende asko bildu zen. Eguraldi beroa zegoen, eta egiten zuen sargoriarekin bertaratuakoez gustura edan zuten aukeran zegoen garagardoa. Plazan jarritako mahai guztiak bete ziren, giro aparta izan zen.

Larunbat arratsaldean, aldiz, euritara jo zuen egunak eta antolatzaileek frontoi barruan kokatu behar izan zuten afaltzeko eremua. Jakina da, itsasondotarrak ez direla eguraldi txarraren aurrean erraz makurtzen, eta berriro ere mahai guztiak bete eta antolatzaileak sukaldatutako ukondo guztiak jan zituzten. Ez zuten apetitu makala erakutsi!!

Bi egun horietan giro aparta egon zen frontoi inguruan, eta herritar eta kanpotar asko ikusi genituen bertan. Ekintza guztiz arrakastatsua izan zen, eta antolatzaileek hasi dira dagoeneko datorren urteko azokaren nondik norakoak pentsatzen.

Mila esker bertaratu zineten guzti!!! ■



Uda kanpaina

Aurtengo uda kanpaina 30 haur inguru bildu dira, uztaileko lehen hiru astetan elkarrekin jolastu eta ondo pasatzeko asmoz. Ekintza ugari izan ditugu, bizikleta irteera Ikaztegiatara, egun zikina, Ordiziko igerilekura ere joan gara, baina arrakastatsuen, dudarik gabe, Master Chef lehiaketa izan da, sukaldari bikainak ditugu Itsasondon! Beste urte batez elkarrengandik ikasi eta elkarrekin gozatzeko aukera izan dugu Itsasondoko Uda Kanpaina! ■



(natura)

Larre motzeko bizitza

Bizitarako ildo ederra saldu nahi digu "Non gogoan han zangoa" esloganak. Hala ere, eguneroko bizitzak errugabe mugatzen dizkigu hain miretsiak ditugun askatasunak. "Aske bizi ala hil" leloa sinestezina bihurtu zaigu.

Joan den mendearen erditik hona, zientzia eta teknikaren aurrerapenek ia lanik egin gabe biziko ginela amestuarazi ziguten; lan gutxi eta eroso, opor luzeagoak eta nahi genuena egiteko aukera izango genituela, gure lana makinak egiten zuten bitartean. Kontrakoa gertatzen ari dela bistan da: gure lan orduak ekonomiaaren hazkundeak markatzen duen erritmora luzatzen doaz, eta hau gutxi balitz, dena zelatatu eta kuantifikatzen duen korporazio kultura baten gobernuaren menpe sentitzen gara; umetzen gaituzten aginduak eta bete ezin diren eskaerekin, autonomia eta sormena itotzen dituzten bitartean.

Denbora aurreztu eta morrontzatik askatuko gintuzten teknologia berriak (e-posta edo smartphonak, besteak beste) burua etengabeko burrundaraz betetzen ari zaizkigu, pentsatzeko gaitasunaren kaltetan, alajaina. Dirua lortu eta gastatzera mugatzen gara, eta bitartean, gure ahalmek alferrik galtzen doaz.

Gure artean mespretxua besterik izan ez, eta honez gero gurean galdu diren basaziak aldarrikatu beharko ditugu akaso. Abiada hartzeko besterik ez bada ere, atzera pauso bat eman eta hain kontrolatua eta arautua dugun mundu honetatik basatiago batera ihesi eraman nahiko genuke gure pentsaera, gure gogaitasun ekologikoa, eta neurri batean behintzat, kendu zaigun askatasuna azalbertzeko asmotan. Eta garbigailuei eta ordenagailuei, edota ikuskizunei eta bizitzaren luzera bezalako aurrerapenei uko egin beharrik ez dago. Agian nor garen berriro asmatzeko aukeran aurkitzen gara. ■



Iñaki Aizpuru



(errezeta)

Oilasko brotxeta currytan

Lau lagunentzako osagaiak:

Bi oilasko bularki handi, 100g arroz, bi baratxuri-atal, perrexila, gatza, piperbeltz beltza, curry koilarakada txiki bi eta 12 brotxeta-makilatxo.

Nola prestatu:

Oilasko bularkiak xaflatan moztu, eta piperbeltz, gatz, oliba olio birjina, xehatutako perrexil eta baratxuri, eta currytan beratuko dugu (beratzen lau bat ordu utzi behar da). Arroza egosi (bere gatz puntuan), hoztu eta sutatik kenduko dugu, gero.

Oilasko bularki zatiak, espiral eran, bata bestearen atzetik brotxela-makilatxoan sartu eta zartaginean egiten jarriko dugu. Ondoren, aparteko zartagin edo ontzi batean arroza (gatz puntuan), piperbeltza eta perrexila salteatuko ditugu. Gero, arroza plater batean jarri eta brotxetak gainean kokatuko ditugu. Bukatzeko, platera Pedro Ximénezren erredukzio-kordioa eta Mangoren erredukzioa erabilia dotoretuko dugu. Azken hau aukerakoa da; bakoitzak bere erara/gustora dotoretu dezala platera.

ON EGIN! ■



Juanan Jiménez
Altamira jatetxea. Ordizia
677 293 697

Euskararen erabileran eragin nahian, euskara taldea sortu du herritar talde batek

Hizkuntza ohituretan aldaketak egon direla sumatzen hasiak zeuden hainbat herritar. Kezka iturriak, besteak beste, honako hauek ziren: helduek erdarara jotzeko gero eta erraztasun gehiago erakusten dutela kalean, haurrek gaztelania lehen baino gehiago erabiltzen dutela, bertako hizkera aldatzen ari dela...

Horrek guztiak eragiten zuen ezinegona bere horretan utzi ordez, zerbait egin beharra zegoela pentsatzen hasi eta konponbidea bilatu nahian UEMAK eskaintzen duen tailerra antolatu zuten udaberrian. Tailerrean, zitutzen susmoak inpresio hutsa ez zirela frogatu ahal izan zuten; izan ere, azken urteetako hizkuntza joeren datu zehatzak erakutsi zituzten, eta haiek argi erakusten dute Itsasondon euskararen apaltzea nabarmena dela. Euskaraz dakitenean kopuruak behera egin du azken hiru hamarkadetan, eta are gehiago etxeko erabilerak. Kaleko erabilera datuak eman ez baziren ere, logikoa da atzeraka egin duela suposatzea.

Bada, joera horri buelta eman nahi zaio euskara taldearen bidez. Horretarako, dagoeneko hainbat ekimen dituzte buruan taldeko partaideek. Herriko hainbat eremutan eragiteko asmoa dute: eskolan, parkean, tabernan...

Hortaz, aurrerantzean izango duzue ekimenon berri.

Euskara taldekoek edozein iradokizun edo zalan-tzatarako atek zabalik izango dituzte, eta noski, esku zabalik hartuko dute euskara taldeko kide izan nahi duen oro.

| | 1991 | 2011 |
|-------------------------|-------|-------|
| Euskaldunak | %82.5 | %74.3 |
| Etxeko erabilera | %71.5 | %49.6 |

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitzen zuzentzen!

| Euskara "makarronikoa" | Euskara txukuna |
|---|---|
| Baimen BAT behar da. | BaimenA behar da. |
| Inozo BATZUK zarete. | Inozo HUTSAK/GALANTAK zarete. |
| Siesta ederra BOTAKO nuke arratsaldean. | Siesta ederra EGINGO NUKE arratsaldean. |

Liburu berriak

Udaran liburu berriak erosi ditugu:

- Nur eta dortoken uhartea
- Andraitzea
- Inoiz ez, inoiz ez
- Amante japonés
- Legado mágico



Oharrak



Desfibriladorea

Gure herrian desfibriladore bat jarri behar dela eta ongizate lan taldetik deialdi hontara gonbidatu nahi zaituztegu.

DESFIBRILADORE KURTSO TEORIKO – PRAKTIKOA
IRAUPENA: 2 ordu.

DATA: azaroa.

Kurtso bakoitzean 16 pertsona egongo dira gehienez, beraz, beharrezkoa da alde zurretik izena ematea. Idatzi jabi@itsasondo.eus helbidera edo deitu udaletxera 943 88 11 70 (Jose Luis). Taldeak osatutakoan jakinaraziko dira data eta ordutegia. ANIMATU.

2016ko egutegia osatzeko argazki bilduma

2015eko otsailak 13an 400 urte bete dira Itsasondok Ordiziarekiko independentzia lortu zuela. Hori dela eta 2016ko udal egutegia osatzeko ahalik eta argazki zaharrenen bilduma egin nahi dugu. Hasi etxeko txokoak asintzen eta argazki zahar-zaharren bat bilatuz gero ekarri udaletxera, eskaneatu eta berriz bueltatuko dizuegu originala.

Dokumental / pelikula zikloa

Aurten ere, azaro eta abendua bitarte dokumental zikloarekin jarraitzeko asmoa dagoela jakinarazi nahi dizuegu Ongizatea lan taldetik. Oraindik datak zehazteke badaude ere, egunak gerturatu ahala jakinaraziko zaizue.

Kultur Agenda

URRIA

16: Pintxo Potea.

20 eta 27: Tipi-Tapa, ongizate fisikoa naiz mentala hobetzeko paseotxo / 17:00tan herriko plazan.

10: Hip Hip Urri! Goierriko txokoetatik barna.

19: Lurralde Antolamenduko lan taldearen bilera / 19:00tan udaletxean.

20: Ongizate lan-taldearen bilera / 19:00tan udaletxean.

15: Herri Bizitza lan-taldearen bilera / 19:00tan udaletxean.

20: Odol Emaileak.

29: Bingoa, Bizi Nahi jubilatuta elkartean.

AZAROA

3, 10, 17 eta 24: Tipi-Tapa, ongizate fisikoa naiz mentala hobetzeko paseotxo / 17:00tan herriko plazan

16: Lurralde Antolamenduko lan taldearen bilera / 19:00tan udaletxean.

17: Ongizate lan-taldearen bilera / 19:00tan udaletxean.

18: Herri Bizitza lan-taldearen bilera / 19:00tan udaletxean.

25: Emakumeen aurkako tratu txarren nazioarteko eguna / elkarretaratzea plazan.

26: Bingoa, Bizi Nahi jubilatuta elkartean.

27: Autodefentsa ikastaroa.

ABENDUAK

1, 8, 15 eta 22: Tipi-Tapa, ongizate fisikoa naiz mentala hobetzeko paseotxo / 17:00tan herriko plazan

3: Euskeraren Nazioarteko Eguna.

24: Olentzero eta Maridomingin.

Telefono interesgarriak



Udaletxea

943 881 170

- **Gizarte Langilea**
- **Udal Arkitektoa**
- **Epaitegia**

Haurreskola

943 164831

Herri Eskola

943 887704

Arbel-Aitz Elkarte

943 881339

Lurdes Janari Denda

943 885236

Arrastoa Botika

943 882148

Medikuarenean Txanda Hartzeko

943 007635

Kaxintane Taberna

606 756551

Nautiko Taberna / Izaskun Hotela

943 880012

Izaskun Ileapaindegia

943 160285

Sasietea

943 161555

Traste Zaharrak

943 161590

Taxi (Ordizia)

943 881486

itsasondo 2.0

Herriko Aldizkaria ((30. zk)) Urria-Abendua 2015

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
Andoni Eskisabel
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Bizi Nahi jubilatuta elkarte
Danel Etxeberria
Eskolako haurrak
Erkuden Mendizabal
Haurreskolako Hezitzaileak
Ibon Aginaga (UEMA)
Iñaki Aizpuru
Itsasondoko Gazte Taldea
Iturririk Guraso Elkarte
Jose Luis Aranburu
Juanan Jimenez
Maider Saenz de Navarrete
Maite Lasa
Maddi Alberdi
Mertxe Orte
Mikel Mendizabal
Susana Truchuelo
Unai Agirre
Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herrikit kanpo bizi baldin bazara, eta, koreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua:

SS-297-2010

ISSN:

2171-5572



**GOGORAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
ABENDUAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**